

I. KAPITULUA .....	4
IZENA, XEDEA, HELBIDE SOZIALA, IRAUPENA, LURRALDE-EREMUA, ESTATUTUAK ALDATZEA.....	4
1. artikulua. IZENA .....	4
2. artikulua. XEDEA .....	4
3. artikulua. HELBIDE SOZIALA.....	4
4. artikulua. IRAUPENA ETA LURRALDE-EREMUA.....	5
5. artikulua. ESTATUTUAK ALDATZEA.....	5
II. KAPITULUA .....	6
BAZKIDEAK ETA HORIEN ARAUBIDE INSTITUZIONALA .....	6
6. artikulua. BAZKIDE IZAN DAITEZKEEN PERTSONAK .....	6
7. artikulua. ONARTZEKO BALDINTZAK .....	7
8. artikulua. ONARTZEARI BURUZKO ERABAKIAK.....	7
9. artikulua. ONARTZEKO PROZEDURAK .....	8
10. artikulua. ONARTZEARI BURUZKO ERREKURTSOAK .....	8
11. artikulua. ESKUBIDE ETA BETEBEHAR SOZIALEN HASIERA .....	9
12. artikulua. BAZKIDEEN BETEBEHARRAK .....	9
13. artikulua. BAZKIDEEN ESKUBIDEAK .....	10
14. artikulua. INFORMAZIO-ESKUBIDEA. MUGAK ETA BERMEAK.....	10
15. artikulua. BAZKIDEAREN BORONDATEZKO BAJA .....	12
16. artikulua. BAZKIDEAREN NAHITAEZKO BAJA .....	13
III. KAPITULUA .....	14
GIZARTE-DIZIPLINAKO ARAUBIDEA .....	14
17. artikulua. BAZKIDEEN ARAU-HAUSTE MOTAK.....	14
18. artikulua. ARAU-HAUSTE SOZIALENGATIKO ZEHAPENAK.....	15
19. artikulua. ZEHATZEKO PROZEDURA.....	16
20. artikulua. KANPORATZEA.....	17
IV. KAPITULUA.....	18
KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA .....	18
21. artikulua. ORGANO SOZIALAK .....	18
22. artikulua. BATZAR OROKORRA.....	18
23. artikulua. BATZAR OROKORREKO DEIALDIA .....	20
24. artikulua. BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA.....	21
25. artikulua. BOTOA EMATEKO ESKUBIDEA .....	24

26. artikulua. GEHIENGOAK.....	25
27. artikulua. BATZAR OROKORRAREN ERABAKIEN AURKA EGITEA.....	25
28. artikulua. KONTSEILU ERREKTOREA. IZAERA ETA ESKUMENAK.....	26
29. artikulua. KONTSEILU ERREKTOREAREN OSAERA, HAUTAKETA, KARGU- UZTEAK ETA LANPOSTU HUTSAK.....	28
30. artikulua. KONTSEILU ERREKTOREAREN FUNTZIONAMENDUA.....	30
31. artikulua. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEEN ERANTZUKIZUNAK ETA ERANTZUKIZUN EGINTZAK.....	32
32. artikulua. ERABAKIAK AURKARATZEA.....	34
33. artikulua. ZUZENDARITZA. IZENDAPENA ETA KARGU-UZTEA.....	34
34. artikulua. ZAINZA BATZORDEA. OSAERA, AGINTALDIA ETA IZENDAPENA.....	35
35. artikulua. INFORMAZIO-ESKUBIDEA.....	35
36. artikulua. ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA.....	35
37. artikulua. ERANTZUKIZUNAK.....	37
38. artikulua. KAPITAL SOZIALA.....	38
39. artikulua. KAPITAL SOZIALERAKO NAHITAEZKO EKARPENAK.....	38
40. artikulua. BORONDATEZKO EKARPENAK.....	39
41. artikulua. EKARPENAK EGUNERATZEA.....	40
42. artikulua. EKARPENEN INTERESA.....	40
43. artikulua. EKARPENAK ESKUALDATZEA.....	40
44. artikulua. EKARPENAK ITZULTZEA.....	41
45. artikulua. PARTAIDETZA BEREZIAK.....	42
46. artikulua. SARTZEKO KUOTAK ETA ALDIZKAKO ETA APARTEKO KUOTAK 42	
47. artikulua. BESTE FINANTZAKETA BATZUK.....	43
48. artikulua. SOBERAKIN GARBIAK.....	43
49. artikulua. SOBERAKIN ERABILGARRIEN BANAKETA.....	43
50. artikulua. NAHITAEZKO ERRESERBA-FUNTSA ETA NAHITAEZKO EKARPENA.....	44
51. artikulua. BORONDATEZKO ERRESERBA FUNTS BANAEZINA.....	44
52. artikulua. GALERAK LEPORATZEA.....	44
53. artikulua. KONTUEN AUDITORETZA.....	46
IV. KAPITULUA: DOKUMENTAZIO SOZIALA ETA KONTABILITATEA.....	47
54. artikulua. DOKUMENTAZIO SOZIALA.....	47
55. artikulua. KONTABILITATEA.....	47
56. artikulua. URTEKO KONTUEN GORDAILUA.....	48

VII. KAPITULUA DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA.....	49
57. artikulua. DESEGITEKO ARRAZOTIAK ETA ERABAKIAK .....	49
AZKEN XEDAPENAK .....	50
Lehenengoa. Arbitraje kooperatiboa .....	50
Bigarrena. Legelari aholkularia.....	50
Hirugarrena. Delituak prebenitzeko ereduak eta horien jarraipena egiteko mekanismoak .....	51
Laugarrena. Kooperatiba indarkeria sexistarik gabeko eremua izateko baliabide berariazkoak.....	51
Bosgarrena. Kooperatiban lan egiten duten pertsonen ordainsariak mugatzea. ....	51

## **I. KAPITULUA**

### **IZENA, XEDEA, HELBIDE SOZIALA, IRAUPENA, LURRALDE-EREMUA, ESTATUTUAK ALDATZEA**

#### **1. artikulua. IZENA**

ITXAROPENA IKASTOLA 1972an eratu zen, Gurasoen Elkarte moduan.

2003ko ekainaren 24an, 4/1993 Legearen babesa baliatuta, hezkuntza-kooperatibaren forma juridikora egokitu zen, eta ITXAROPENA IKASTOLA GIZARTE EKIMENEN KOOPERATIBA ELKARTEA izena hartu zuen (aurrerantzean, "Itxaropena Ikastola" edo "Kooperatiba").

Gaur egun, Eusko Legebiltzarrak onetsitako Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen printzipio eta xedapenen mendekoa da, bai eta indarrean dauden lege-aginduen, honako Estatutu hauen eta, egokia hala baldin bada, Barne Araudiaren mendekoa ere.

#### **2. artikulua. XEDEA**

Itxaropena Ikastola ekimen eta parte hartze sozialeko ikastetxe plurala da, euskara ikasteko eta komunikatzeko hizkuntza moduan erabiltzen duena, hizkuntzaren eta euskal kulturaren transmisioarekin konprometituta dagoena eta ikasleei prestakuntza akademiko integrala eta giza prestakuntza sendoa eskaintzen diena.

Ikastola honetan, erakundea osatzen duten estamentuen parte hartze aktiboa da funtzionamenduaren oinarria. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza ditu xede.

#### **3. artikulua. HELBIDE SOZIALA**

Helbide soziala Seber Otxoa 2, Trapagaran (Bizkaia) izango da, eta udalerrri berean aldatzea erabaki ahal izango du Kontseilu Errektoreak, abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen 79. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

#### **4. artikulua. IRAUPENA ETA LURRALDE-EREMUA**

**BAT.-** Sozietate-elkartea muga jakinik gabeko eperako eratu zen, eta sortze-eskritura publikoa sinatzen denean ekingo die dagozkion jardueri.

**BI.-** Euskal Autonomia Erkidegoaren luze-zabala du jarduteko lurralde-eremua.

#### **5. artikulua. ESTATUTUAK ALDATZEA**

**BAT.-** Estatutuak aldatzea Batzar Orokorrak erabaki beharko du, baldin eta honako eskakizun hauek bete badira:

- a) Kontseilu Errektoreak edo proposamena egin duten bazkideek idatziz txosten bat egitea, proposamenaren justifikazio zehatza azalduta.
- b) Aldatzekoak diren alderdiak deialdian behar bezain argi adieraztea.
- c) Deialdiaren iragarkian jasota geratzea Bazkide diren guztiek eskubidea daukatela proposatutako aldaketaren eta horri buruzko txostenaren testu osoa egoitza sozialean aztertzeko eta dokumentu horiek doan emateko edo bidaltzeko eskatu ahal izateko.
- d) Batzar Orokorraren erabakia bertaratutako eta ordezkaturako kideek emandako botoen gehiengoz hartzea, baldin eta baliozko eran eman badira, abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen 38.1 artikuluan ezarrita dagoena jarraituta.
- e) Horrez gain, izena aldatzeko, helbidea aldatzeko edo gizarte-xedea aldatzeko erabakia, inskribatu baino lehen, Bizkaiko lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari batean iragarriko da.

Erabakia, onetsitako testuarekin batera, eskritura publiko bihurtuko da, eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuko da.

**BI.-** Aldaketa Kooperatibaren mota aldatzea edo gizarte-xedearen funtsezko aldaketa denean, aurka bozkatu duten Bazkideek edo, batzarrera joan ez arren, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan erabakia inskribatu osteko berrogei eguneko epean Kontseilu Errektoreari zuzendutako idatzian desadostasuna adierazi dutenek, eskubidea izango dute Kooperatibatik bereizteko. Kasu horietan, kideen baja justifikatutzat joko da.

## II. KAPITULUA.

### BAZKIDEAK ETA HORIEN ARAUBIDE INSTITUZIONALA

#### I. ATALA. BAZKIDEAK ONARTZEA

##### **6. artikulua. BAZKIDE IZAN DAITEZKEEN PERTSONAK**

Bazkideak honako artikulua honetako Bat eta Bi idatz-zatietan jasotako modalitateetan sartuta daude.

##### **BAT.- Bazkide erabiltzaileak:**

- a) Seme-alabak edo tutoretzapekoak Kooperatiba honetan ikasten dauzkaten aita edo ama, ordezkari edo tutore direnak, eta ikasleen guraso-ahala esleituta dutenak.
- b) Kooperatibak zehaztuta dauzkan ikastaro eta inguruabarretan, adinez nagusi diren ikasleak.
- c) Erakunde publikoak eta erabilera publikoko erakunde pribatuak, ongintzakoak barne, baldin eta ikasle adingabeen edo ezgaien legezko zaintzaren eta babesaren ardura badute, edo ikasle helduak ordezkatzeko badituzte, betiere erakunde horiek zuzentzen dituzten zentro, egoitza edo establezimenduei atxikita izanik, ordezkaritza berariaz emanez gero.

##### **BI.- Bazkide Laguntzaileak:**

Kooperatiba-jardueran zuzenean parte hartu gabe, erakundearen gizarte-xedea lortzen lagundu dezaketen eta gainerako Bazkideekin interes komuna dutela egiaztatu duten pertsona fisiko edo juridikoek, publiko zein pribatuak, eskuratu ahal izango dute izaera hori.

Bazkide Erabiltzaile izateari utzi eta Kooperatiban parte hartu nahi duten Bazkideek Bazkide Laguntzaile izaera eskuratu ahal izango dute, betiere baldin eta idatziz eskatzen badute eta beharrezko baldintzak betetzen badituzte.

Bazkide Laguntzaile diren entitate eta instituzio publikoek eta erabilera publikoko pribatuak ere Bazkide Erabiltzaile izaera hartu ahal izango dute aldi berean, baldin eta ikasle adingabeen edo ezgaien legezko zaintzaren eta babesaren ardura badute, edo ikasle helduak ordezkatzeko badituzte, betiere erakunde horiek zuzentzen dituzten zentro, egoitza edo establezimenduei atxikita izanik, ordezkaritza berariaz emanez gero.

**HIRU.-** Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiek ezarriko dituzte Bazkide onartuen bai lankidetzako baldintzak, eta bai gainerako eskubide nahiz betebeharrak espezifikoak direnak.

Hala ere, Estatutu hauetako 12. eta 13. artikuluetan azalduta dauden betebeharrak eta eskubideak izango dituzte, betiere baldin eta berariazkoekin eta hitzartutako lankidetzarekin bateragarriak badira.

Estatutu hauetako 25. artikuluan araututa dago botoa emateko eskubidea.

## **7. artikulua. ONARTZEKO BALDINTZAK**

**BAT.-** **Bazkide Erabiltzaile** moduan onartzeko, ondorengo eskakizun hauek bete beharko dira:

- a) Hemezortzi urte baino gehiago izatea edo nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun nahikoa izatea.
- b) Kapital sozialari egiteko ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea eta honako Estatutu sozial hauetan Bazkide mota horretarako ezarritako Hasierako Nahitaezko Ekarpena egitea, edo, Batzar Orokorrak erabakita, indarrean dagoena.
- c) Honako Estatutu sozial hauetan Bazkide Erabiltzailearentzat ezarrita dagoen partaidetza-konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibako organo sozialek eta indarrean dagoen kooperatiba-legediak baliozko eran hartutako erabakiak bere gain hartzea eta betetzea, bai eta Estatutu sozial hauek eta Barne Araubideko Araudia ere.
- e) Onarpena eskatzea, Kontseilu Errektoreari zuzendutako eskabide idatziaren bitartez.

**BI.-** **Bazkide Laguntzaile** moduan onartzeko, ondorengo eskakizun hauek bete beharko dira:

- a) Hemezortzi urte baino gehiago izatea edo nortasun juridiko nahikoa izatea.
- b) Kapital sozialari egiteko ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea eta honako Estatutu sozial hauetan Bazkide horientzako ezarritako Hasierako Nahitaezko Ekarpena egitea, edo, Batzar Orokorrak erabakita, indarrean dagoena.
- c) Honako Estatutu hauetan eta bazkidetzan sartzeko hartutako erabakian hemen aipatutako Bazkide Laguntzaile honi buruz ezarritako parte hartze konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibako organo sozialek eta indarrean dagoen kooperatiba-legediak baliozko eran hartutako erabakiak bere gain hartzea eta betetzea, bai eta Estatutu sozial hauek eta Barne Araubideko Araudia ere.
- e) Onarpena eskatzea, Kontseilu Errektoreari zuzendutako eskabidearekin.

## **8. artikulua. ONARTZEARI BURUZKO ERABAKIAK**

**BAT.-** Bazkideak onartzeari buruz hartu beharreko erabakia Kontseilu Errektoreari dagokio.

**BI.-** Bazkideak onartzeari buruzko erabakiak ondorengo arrazoi hauetan oinarrituta soilik mugatu ahal izango dira:

- (a) Kooperatibako zerbitzuaren gaitasunean.
- (b) Kooperatibaren antolaketa eta funtzionamendurako Bazkide berriak edukitzeko behar objektiboetan.

Onarpena onestea edo ukatzea ezingo da erabaki Helburu Sozialarekiko diskriminazio arbitrarioa edo bidegabea eragingo duten arrazoien arabera.

## **9. artikulua. ONARTZEKO PROZEDURAK**

**BAT.-** Onartzeko eskaera idatziz egingo zaio Kontseilu Errektoreari, eta horrek gehienez hirurogei (60) eguneko epean ebatziko du, eskaera jaso duenetik zenbatzen hasita.

Onarpenari buruzko erabakia idatziz jakinaraziko zaio interesdunari, eta, ebazpena ezezkoa baldin bada, horren arrazoiak azalduko dira.

**BI.-** Epe hori igaro eta ez baldin bada berriaz ebazpenik adierazi, onarpena onetsi dela ulertuko da.

**HIRU.-** Edonola ere, Kontseilu Errektoreak Kooperatibako iragarki-oholean argitaratu beharko du hartu duen erabakia, onartzekoa zein ez onartzekoa.

## **10. artikulua. ONARTZEARI BURUZKO ERREKURTSOAK**

**BAT.-** Ukatzeko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta eskatzaileak errekurritu egin ahal izango du Batzar Orokorraren aurrean, jakinarazpena era baliozkoan egin eta hogeit (20) eguneko epean. Errekurtsoa lehenengo Batzar Orokorra ebatziko du, isilpeko bozketa bidez eta interesdunari entzun ondoren; interesdunari idatziz jakinaraziko zaio erabakia.

**BI.-** Onartzeko erabakia Batzar Orokorrean errekurritu ahal izango da, erabakia jakinarazi eta hurrengo hamar (10) eguneko epean, Bazkideen ehuneko hamarrak (%10ak) gutxienez eskatuz gero. Batzar Orokorra egingo den lehenengo bileran hartu beharko da erabakia, isilpeko bozketa bitartez. Aldez aurretik interesdunari entzunaldia eskaini beharko zaio nahitaez.

## **II. ATALA. BAZKIDEEN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK**



## **11. artikulua. ESKUBIDE ETA BETEBEHAR SOZIALEN HASIERA**

Eskubide eta betebehar sozialak eragina izaten hasiko dira onartzeko erabakia hartu osteko egunaz geroztik.

Baldin eta erabaki hori norbaitek aurkaratuko balu, etenda geratuko litzateke Batzar Orokorrak erabaki arte.

## **12. artikulua. BAZKIDEEN BETEBEHARRAK**

Bazkideek honako hauek bete behar dituzte nahitaez:

- (a) Batzar Orokorrak eta deialdia jaso duten gainerako organoetako bileretara joatea.
- (b) Hautatuak izan diren karguak onartzea, aurkezteko arrazoi bidezkorik izan ezean.
- (c) Kooperatibaren helburu soziala osatzen duten jardueretan parte hartzea.  
Hori gauzatzeko, Kooperatibako bazkide mota bakoitzarentzat gutxieneko modulu edo arau bezala ondorengo hauek ezarri dira:
  - Bazkide erabiltzaileentzat: seme-alabak edo tutoretzapekoak Kooperatibara bidaltzea eskaintzen diren hezkuntza-zikloetan, edo eskatzen dituzten zerbitzuak erabiltzea, eta une bakoitzean finkatuko diren aldizkako ekarpenak eta kontribuzioak ordaintzea.
  - Bazkide laguntzaileentzat: Kooperatibaren esanetara prest egotea, bai lankidetzan aritzeko eta bai helburu soziala garatzeko zein hobetzeko agindu dizkieten zereginak betetzeko, onartua izateko erabakiaren arabera.
- (d) Kooperatibak garatuko duen helburu sozialarekin lehia-jarduerarik ez egitea, jarduera horiek egiten dituenarekin ez lankidetzan aritzea, Kontseilu Errektoreak berariaz baimenduta izan ezik.
- (e) Kooperatibaren jarduerak eta datuak isilpean gordetzea, horiek zabaltzeak interes sozialei kalte egin ahal izanez gero.
- (f) Kapital sozialari egindako ekarpenak aurreikusitako baldintzetan ordaintzea eta aldizkako kuotak finkatutako epeetan ordaintzea.
- (g) Galerak leporatzearen ardura bere gain hartzea, Batzar Orokorrak erabakitako zenbatekoan.
- (h) Bazkide erabiltzaileek joan egin beharko dute seme-alaben edo tutoretzapekoen arduradunek informazioa emateko eta Kooperatiban egiten ari diren ikasketei buruzko bilakaerak eta egoera azaltzeko hitzartuko dituzten bileretara, bai eta Kooperatibako beste zerbitzu batzuen hartzaile bezala deituko dituzten bileretara ere.
- (i) Kooperatibaren barruan gizarte-giro egokia eta errespetuzko bizikidetzaren lortzen laguntzea, horrekiko leialtasun-jarreraz.
- (j) Jendaurrean Kooperatibaren izen ona galaraztea eragin dezakeen adierazpenik ez egitea.
- (k) Lege- eta estatutu-arauetatik eratorritako gainerako betebeharrak betetzea, bai eta Kooperatibako organoek baliozko eran hartutako erabakietatik eratorritakoak ere.

### **13. artikulua. BAZKIDEEN ESKUBIDEAK**

**BAT.-** Bazkideek honako eskubide hauek izango dituzte:

- (a) Kooperatibako organoetako karguetarako kideak hautatzeko eta hautatuak izateko, honako Estatutu hauetan adierazitako berezitasunekin.
- (b) Batzar Orokorrean eta hori osatzen duten gainerako organoetan erabakiak hartzeko proposamenak egitea eta horietan parte hartzea, hitzarekin eta botoarekin.
- (c) Kooperatibaren jarduera eta zerbitzu guztietan parte hartzea, diskriminaziorik gabe.
- (d) Dazkan eskubideak baliatzeko eta dagozkion betebeharrak betetzeko behar duten informazioa jasotzea, honako Estatutu Sozial hauen hurrengo artikuluan aurreikusita dagoenari kalterik eragin gabe.
- (e) Estatutu hauen esparruaren baitan, barne-ordenamendu juridikoan aldaketak sustatzea.
- (f) Kapital sozialerako ekarpenak eguneratzea eta itzultzea, egokia hala baldin bada, bai eta horien interesak jasotzea ere, hala egokituz gero.
- (g) Kooperatibako organo sozialek baliozko eran hartutako erabakiak betearaztea.
- (h) Legeetatik eta estatutuetatik eratorriko diren gainerakoak.

**BI.-** Eskubide sozial horiek bazkide guztientzat berdinak izango dira, eta lege- eta estatutu-arauen eta Kooperatibako organoek baliozko eran hartutako erabakien arabera gauzatuko dira.

**HIRU.-** Bazkideek bazkide izaera (Erabiltzailea edo Laguntzailea) ezkontideari edo beste senide bati transmititu ahal izango diote, lehen ahaidetasun mailara arte, 43. artikuluan jasotako baldintzen arabera.

### **14. artikulua. INFORMAZIO-ESKUBIDEA. MUGAK ETA BERMEAK.**

**BAT.-** Bazkideek informazio-eskubidea erabili ahal izango dute, Legean, Estatutuetan edo Batzar Orokorraren erabakietan ezarritakoaren arabera. Batzar Orokorrak egoki irizitako bideak ezarri ahal izango dira Bazkideen eskubide hori bideratzeko eta gauzatzeko.

**BI.-** Bazkideak honako eskubide hauek izango ditu:

- a. Kooperatibaren Estatutu Sozialen eta Barne Araubideko Araudiaren kopia bat eskatzeko.
- b. Kooperatibako Bazkideen Erregistro Liburua eta Batzar Orokorraren Akta Liburua aztertzeko, arrazoitutako eskaera egin ostean, eta eskuratzeko bai Batzar Orokorrean hartutako erabakien eta aktaren kopia ziurtatua, eta bai Bazkideen Erregistro Liburuan egindako inskripzioen ziurtagiria, arrazoitutako eskaera egin ondoren.
- c. Norberari zuzenean eragiten dioten Kontseilu Errektorearen erabakien kopia ziurtatua eskatzeko.
- d. Kontseilu Errektoreak Kooperatibari dagokionez daukan egoera ekonomikoaren berri jasotzeko, eskaera egin osteko hilabeteko epean, gehienez ere.

- e. Idatziz eskatzeko Kontseilu Errektoreari Kooperatibaren funtzionamenduaren edo emaitzen edozein alderdiri buruz ezagutu beharrekotzat jo dituen argibideak edo txostenak, eta idatzia aurkeztu ostean hamabost egun baino gehiagora egingo den lehenengo Batzar Orokorrean erantzun beharko dira.
- f. Bazkideek ahoz eskatu ahal izango dituzte ekitaldiko kontuei edo edozein proposamen ekonomikori buruz eztabaidatu behar den Batzar Orokorrean horiei buruzko azalpenak edo argibideak.
- g. Helbide sozialean eskuragarri izateko urteko kontuak eta emaitzen proposamen aplikagarria jasotzen dituzten agiriak, deialdiko epearen barruan aztertu ahal izateko, edo proposamen ekonomikoa justifikatzen duen dokumentazioa, Batzar Orokorrean, gai-zerrendaren arabera, ekitaldiko kontuei edo edozein proposamen ekonomikori buruz eztabaidatu behar denean.  
Epe berean, Bazkideek eskubidea izango dute helbide sozialean aztertzeko kanpoko kontu-auditoretzaren txostena eta, egokia hala baldin bada, Kontseilu Errektorearen txostena. Halaber, bazkideek eskura izan beharko dute, egokia hala baldin bada, Estatutuen 36. artikuluan jasota dagoen Zaintza Batzordearen txostena.  
Epe horretan bertan, Bazkideek idatziz eskatu ahal izango dituzte, Batzar Orokorra egin baino bost egun lehenagotik gutxienez, dokumentazio ekonomikori buruzko azalpenak eta argibideak, Batzar Orokorreko ekitaldian erantzun ahal izan daitezen.

**HIRU.**- Aurreko 2. atalean ezarritako eskubideari kalterik eragin gabe, boto guztien gutxienez ehuneko hamarra (%10a) ordezkatzeko duten Bazkideek beharrekotzat jotzen duten informazioa eskatu ahal izango dute idatziz une oro. Kontseilu Errektoreak idatziz eman beharko du eskatutako informazioa, gehienez ere hogeita hamar eguneko epean.

**LAU.**- Edonola ere, Kontseilu Errektoreak Kooperatibaren aldagai sozioekonomiko nagusien berri eman beharko die Bazkideei edo horiek ordezkatzeko dituzten organoei, gutxienez hiru hilean behin, eta egoki irizten dieten bideak erabiliz.

**BOST.**- Kontseilu Errektoreak eskaera ausartegia edo oztopatzailea denean bakarrik ukatu ahal izango du eskatutako informazioa, edo informazio hori emateak Kooperatibaren bidezko interesak arrisku larrian jartzen dituztenean. Hala ere, ez da salbuespenik izango ukatutako informazioa Batzar Orokorreko ekitaldian eman behar denean eta informazio-eskaera bertaratutako eta ordezkatzeko kideek emandako botoen erdiek baino gehiagok babestu dutenean, eta, gainerako kasuetan, informazio-eskatzaileek jarritako errekursoaren ondorioz Batzar Orokorra hala erabaki duenean. Kontseilu Errektorearen ezezkoa aurkaratu ahal izango dute eskatzaileek, abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen 25. eta 51. artikuluetan ezarrita dagoen prozeduraren arabera.

**SEI.**- Oro har ulertuta, Bazkideen informazio-eskubidea errespetatzeko berme moduan finkatuko dira, abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen 24. eta 25. artikuluetan jasota dagoenaren arabera, ondorengo hauek:

- a) Kontseilu Errektorea da Bazkideen informazio-eskubidea bermatzeko organo eskuduna.

- b) Kontseilu Errektoreari zuzendutako informazio-eskaera oro behar bezala identifikatutako Bazkideek sinatu beharko dute, eskaera egiteko arrazoiak behar bezala adierazita.
- c) Kooperatibak Bazkideekiko harremanetan erabiltzen dituen formatu, programa edo lengoia informatikoei buruzko informazioa eskatu ahal izango da.
- d) Eskatutako informazioa formatu elektronikoa igorri ahal izango da.
- e) Informazioa eskaera egiteko erabilitako Euskadiko hizkuntza ofizial berean bidali beharko da, baldin eta eskatzaileak berariaz hala eskatu badu.
- f) Kontseilu Errektoreak artikuluko 5. paragrafoan aurreikusitako kasuetan bakarrik ukatu ahal izango du informazioa, arrazoiak eman eta paragrafo horretan jasotako salbuespena aintzat hartuta.
- g) Baldin eta informazio-eskaera gutxienez Bazkideen ehuneko hogeik (%20k) sinatu badu, Kontseilu Errektorearen ezezko erabakiak bi hereneko gehiengo kualifikatua beharko du ezinbestean.
- h) Kontseilu Errektoreak informazioa ukatzeko hartutako erabakia errekurritu ahal izango da Batzar Orokorren aurrean, erabakia jakinarazi den egunetik hogeik eguneko epearen barruan.
- i) Errekurtsioa ondoren egingo den lehenengo Batzar Orokorra ebatzi beharko du, isilpeko bozketa bidez.
- j) Aldez aurretik interesdunari edo interesdunei entzunaldia eskaini beharko zaio edo zaie nahitaez.
- k) Bazkideak lortutako informazioa erabiltzeko muga bakartzat hartuko dira abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legetik, aplikazio orokorreko beste arau batzuetatik eta honako Estatutu hauetatik eratorriko direnak.

### **III. ATALA. BAJAREN ARRAZIOAK ETA ONDORIOAK**

#### **15. artikulua. BAZKIDEAREN BORONDATEZKO BAJA**

**BAT.-** Edozein bazkidek bere borondatez baja egin ahal izango du Kooperatiban, nahi duenean, aldez aurretik Kontseilu Errektoreari bi hilabete lehenago idatziz jakinarazita, nahitaezko gertaeretan izan ezik.

Aurreko paragrafoan ezarritakoari kalterik eragin gabe, Bazkideak Kooperatiba-elkartean jarraitu beharko du eta bere izaerari eutsi beharko dio ekitaldi ekonomikoa amaitu arte.

**BI.-** Bai aurreabisu-epea ez betetzea eta bai berariaz adierazita eskatutako gutxieneko iraupen-epeak errespetatu ez dituzten bajak justifikatu gabeko bajatzat hartuko dira, betiere Kooperatibako Kontseilu Errektoreak, kasu bakoitzeko inguruabarrak kontuan hartuta, beste zerbait erabaki ezean. Edonola ere, horrek ez dio kalterik eragingo Bazkideari eska dakizkiokeen Kooperatibako jarduerak eta zerbitzuak nahitaez bete behar izateari eta kalte-galeren ordaina eman behar izateari.

**HIRU.**- Baja justifikatuztat edo justifikatu gabekotzat kalifikatzea Kontseilu Errektorearen eskumena izango da, eta gehienez ere hiru (3) hilabeteko epean formalizatu beharko du, artikulua honetako 1. paragrafoan aipatzen den aurreabisua jakinaraziko denetik zenbatzen hasita. Kalifikazioa idatziz jakinaraziko zaio Bazkide interesdunari. Epe hori igarota, Kontseilu Errektoreak ez baldin badu hori jakinarazi, baja justifikatuztat joko da.

**LAU.**- Borondatezko baja justifikatu gabekotzat joko da Bazkideak Kooperatibarekiko lehia-jarduerak gauzatu dituenean.

**BOST.**- Baldin eta batzea, zatitzea edo eraldatzea gertatu bada, edo maila aldatu edo helburu soziala funtsean mudatu bada edo kapitalari ekarpen berriak nahitaez egin behar bazaizkio, justifikatuztat joko da erabaki zuzenaren aurka bozkatu duen Bazkideari baja ematea, edo, erabaki hori hartu zuen Batzar Orokorrera bertaratu ezean, horrekin ados ez dagoela adierazi duen Bazkideari.

## **16. artikulua. BAZKIDEAREN NAHITAEZKO BAJA**

**BAT.**- Nahitaezko baja egingo zaie Euskadiko Kooperatiben Legearen edo honako Estatutu Sozial hauen arabera Bazkide izateko eskatzen diren baldintzetan huts egindako Bazkideei. Edonola ere, honako hauek izango dira Bazkideei nahitaez baja egiteko arrazoiak:

- Bazkide izateko eskatutako legezko betekizunak ez betetzea,
- nahitaezko ekarpenarekin lotuta dauden betebeharrak ez betetzea, dela hasierako ekarpenekoan, dela Batzar Orokorrek Kapital sozialari onetsitako nahitaezko ekarpen berri batekoan,
- kanporatzea, eta
- heriotza.

**BI.**- Bazkide interesdunari entzunaldia eskaini ondoren, nahitaezko baja Kontseilu Errektoreak erabakiko du ofizioz, beste edozein Bazkidek edo eragindako pertsonak berak hala eskatuta.

**HIRU.**- Kontseilu Errektorearen erabakia betearaztekoa izango da, Batzar Orokorraren berrespena jakinarazi denetik edo errekurtsioa jartzeko epea igaro denetik.

**LAU.**- Nahitaezko baja justifikatuztat joko da, baldin eta Bazkidea izateko baldintzak ez badu galdu Kooperatibarekiko dituen betebeharrak ez betetzeko borondatez edo nahitaezko bajarekin behar ez bezala baliatzeko asmoz.

**BOST.**- Kontseilu Errektoreak borondatezko zein nahitaezko bajen kalifikazioari edo ondorioei buruz hartutako erabakiarekin ados ez dagoen Bazkideak errekurtsioa aurkeztu ahal izango du, horretarako Estatutu hauetako 20. artikuluan ezarrita dagoena aplikatuta.

### III. KAPITULUA

#### GIZARTE-DIZIPLINAKO ARAUBIDEA

##### **17. artikulua. BAZKIDEEN ARAU-HAUSTE MOTAK**

**BAT.-** Gizarte eta erantzukizun mailako giro egokia ziurta ahal izateko, eta Bazkideen eta Kooperatibaren kudeaketa ekonomikoaren arteko bizikidetza aldetik inola ere oztoporik ez izateko, gizarte-diziplinako araubide bat garatuko dugu ondorengo artikuluetan.

**BI.-** Bazkideek egindako arau-hauste sozialak, daukaten garrantziaren, ondorioen eta maltzurkeriaren arabera neurtuta, oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

**HIRU.-** Arau-hauste oso larriak dira honako hauek:

- a. Lehia-eragiketak, kapitalerako ekarpenetan iruzur egitea, datu garrantzitsuak ezkutatzea, eta Kontseilu Errektoreko kideekiko eta sozietatearen ordezkariekiko begirunerik gabe jokatzeko, Kooperatibaren interes materialei edo prestigio sozialari kaltea eragiteko moduan.
- b. Kooperatibak Bazkideekin edo hirugarrenekin izaten dituen harremanetarako garrantzitsuak diren agiriak, sinadurak, zigiluak, markak edo antzeko datuak faltsutzea.
- c. Kooperatibaren interesei kalte larriak eragiten dizkieten ekintzak edo jarduerak egitea, eta Kooperatibaren isilpeko kontuak ezagutaraztea edo zabaltzea.
- d. Kontseilu Errektorearen edo edozein kideren eginkizunak usurpatzea.
- e. Bazkide izateaz baliatuta espekulazio-jarduerak edo legeen aurkakoak garatzea.
- f. Honako Estatutu sozial hauen 12. artikuluan jasota dauden betebeharrak modu larrian edo behin eta berriz ez betetzea, eta Bazkideak behin eta berriz hitzez eta/edo egitez jokatzeko Kooperatibaren izen onari edo ondareari eta, oro har, Kooperatiba osatzeko helburu sozialari kalte egin diezaiokeen moduan.
- g. Beste Bazkide batzuei edo Kooperatibako langileei, halakorik izango baldin balitz, hitzez edo egitez tratatu txarrak eragitea, sozietatearen xedea garatzeko beharrezkoak diren lanak, jarduerak edo eragiketak egiteko edo organo sozialak biltzeko garaian.
- h. Urtebete baino gutxiagoko epean, arau-hauste larriak behin eta berriz egitea.

**LAU.-** Arau-hauste larriak dira honako hauek:

- a. Behar bezala deitutako Batzar Orokorretako bileretara ez joatea, justifikatu gabe, baldin eta aldezturik Bazkidea, azken hiru urteetan gizarte-organoren horretako bileretara joan ez delako, bi alditan zigortu badute arau-hauste arina egitegatik.
- b. Hautatu duten kargu sozialak behar den moduko arduraz ez zerbitzatzea.
- c. Honako Estatutu hauetan aurreikusitako betebeharrak ekonomikoak berandu betetzea.
- d. Dokumentuak, gutunak eta datuak baimenik gabe atxikitzea, edo horiek berez dagoenaz besteko moduan aplikatzea, bideratzea edo erabiltzea.

- e. Bazkide bakoitzari agindutako lanak eta erantzukizunak ondo betetzea era larrian oztopatu duten ekintza edo ez-egite engainagarriak.
- f. Urtebete baino gutxiagoko epean arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.

**BOST.**- Arau-hauste arinak dira honako hauek:

- a. Bazkidea behar bezala deitutako Batzar Orokorreko bileretara ez joatea, era egokian justifikatu gabe.
- b. Kooperatibako Idazkariari ez jakinaraztea ohiko egoitza edo egoitza soziala aldatu egin dela, hori gertatu eta bi hilabeteko epearen barruan.
- c. Estatutueta, erregelamenduetako eta funtzionamendu-arauetako aginduak gutxienez behin ez betetzea, barkatu ezin den ez-jakiteagatik.
- d. Bazkide bakoitzari agindutako lanak eta erantzukizunak behar bezala egitea modu arinean oztopatu dioten engainatzeko egiteak edo ez-egiteak.
- e. Arduragabekeria edo huts barkatu ezina, baldin eta Kooperatibaren interesei kalterik eragin ez badie.

## **18. artikulua. ARAU-HAUSTE SOZIALENGATIKO ZEHAPENAK**

**BAT.**- Arau-hauste arinengatik:

- Ohartarazpena idatziz.
- Boto-eskubidea etetea, gehienez ere urtebeteko epean.

**BI.**- Arau-hauste larriengatik:

- Bat ataleko aurreko guztiak.
- Bi urtez Kooperatibako organo sozial elkargokideetako kide izateko gaitasuna kentzea.
- Ohartarazpen idatzia, Kontseilu Errektorearen erabakiaren arabera, jendaurrean jakinarazi ahal izango dena.
- Boto-eskubidea etetea, gehienez ere bi urteko epean.

**HIRU.**- Arau-hauste oso larriengatik:

- Bat eta Bi ataletako aurreko guztiak.
- Eskubide sozial guztiak edo horietakoren bat etetea, gehienez ere hiru urtera bitarteko epean.
- Kanporatzea.

## **19. artikulua. ZEHATZEKO PROZEDURA**

Hutsegite sozialengatik zehapenak ezartzea Kontseilu Errektorearen eskumena da, aldez aurretik gaiari dagokion espedienteari hasiera emanda.

**BAT.-** Bazkideak arau-hauste sozialengatik zigortzeko, betiere arloari dagokion espedientea izapidetuko da, honako arau hauen arabera:

- a. *Arau-hauste arinak* direnean, Kontseilu Errektoreak, arau-haustetzat har daitezkeen egitateen edo ez-egiteen jakinaren gainean dagoenean, zehapen-espedientearen instrukzioa egingo duen pertsona bat izendatuko du bere kideen artean. Pertsona horrek, egokia hala baldin bada, kargu-orri bat egingo du erruztatu duten bazkidearen aurka, eta idatziz jakinaraziko zaizkio bai arau-haustearen behin-behineko kalifikazioa, eta bai horri dagokion zehapen-proposamena. Bazkideak deskargu-orri bat egin ahal izango du hamar eguneko epean, izapidegilearen jakinarazpena jaso duen egunetik zenbatzen hasita; orri hori idatziz aurkeztu beharko zaio Kontseilu Errektoreari. Une horretatik aurrera, Kontseilu Errektoreak gehienez ere hilabeteko epean eman beharko du arau-haustearen kalifikazioari eta behin betiko zehapenari buruzko erabakia, baina, edonola ere, nahitaez, interesdunari entzunaldia emango dio aldez aurretik, eta, ondoren, Kontseilu Errektoreak horretarako zitazioa egin ostean, aldez aurreko entzunaldira ez baldin bada agertu, orduan erabakiko du arau-haustearen kalifikazioari eta behin betiko zehapenari buruz azken auzialdi kooperatiboan, horrekin eragozpenik eragin gabe aurkaratu ahal izateko aukerari, Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen 52. artikuluan ezarritako izapide prozesalaren arabera.
- b. *Arau-hauste larriak* edo *oso larriak* direnetan, prozedura arau-hauste arinetarako aurreikusitakoaren berdina izango da, Kooperatibaren barne-bidea agortu ez duen errekurritu ahal den Kontseilu Errektorearen zehapen-erabakia izan ezik. Bazkideak Batzar Orokorrean errekurritu dezake Kontseilu Errektorearen zehapen-erabakia, zehapena jakinarazi eta hogeita hamar eguneko epean. Batzar Orokorrean erabakiak Kooperatibaren barne-bidea agortuko du, betiere eragozpenik eragin gabe Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 41. artikuluan aurreikusitako izapide prozesalean aurreikusitako Bazkideak Batzar Orokorrean erabakiaren aurka egin dezakeen aurkaratzeari.

**BI.-** Arau-hauste arinek hilabetera preskribatuko dute, larriek bi hilabetera, eta oso larriek hiru hilabetera.

Arau-hausteen preskribatze-epea arau-haustea egin den egunetik hasiko da kontatzen. Arau-hausteak jarraian edo etengabe eginez gero, arau-hausteko jokabidea amaitu zenean hasiko da epealdia. Preskribatzea eten egingo da, interesduna jakitun dela, zehatzeko prozedura bat hasi baldin bada, eta preskripzio-epea berrabiaraziko da, baldin eta zehapen-espedientea ustezko erantzuleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik geldituta badago, lau hilabete baino gehiagoz inolako ebazpenik eman edo jakinarazi gabe.



**HIRU.**- Zehapen guztiak betearaztekoak izango dira auziari dagokion errekursoaren epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, espedientea ireki dioten Bazkideak eskubide hori erabili ez baldin badu, edo dagokion epai apelaezina xedatu eta hurrengo egunetik aurrera.

**LAU.**- Kanporatze kasuan izan ezik, Kontseilu Errektoreak, interesdunek hala eskatuta, bete gabe dauden ezarritako zehapenen zatia ezeztatu ahal izango du.

## **20. artikulua. KANPORATZEA**

**BAT.**- Bazkideak kanporatzea Kontseilu Errektoreak Estatutuetan tipifikatuta dauden arau-hauste oso larri bategatik soilik erabaki ahal izango du, horretarako bideratutako espedientearen bidez eta interesdunari entzunda.

**BI.**- Kanporatzeko erabakiaren aurka, Bazkideak errekurtsua aurkeztu ahal izango du Batzar Orokorrean, hogeita hamar eguneko epean, erabakia jakinarazi denetik aurrera zenbatuta.

Batzar Orokorrean aurkeztutako errekurtsua ebazteko, interesdunari entzunaldia eskaini beharko zaio, aurkeztu den egunetik hiru hilabeteko epean gehienez ere. Epe hori igaro eta ebazpena ez baldin bada eman eta jakinarazi, errekurtsua baietsi egin dela ulertuko da. Batzar Orokorrean aurrean aurkezteko errekurtsua gai-zerrendako puntu bezala sartu beharko da, eta isilpeko bozketa bidez ebatziko da, alde zuzenetik interesdunari berari entzunaldia eskainita.

**HIRU.**- Kanporatzeko erabakia betearaztekoa izango da Batzar Orokorrean berrespena jakinarazi denetik edo horien aurrean errekurtsua aurkezteko epea igaro denetik.

**LAU.**- Kanporatzeko erabakia, Batzar Orokorrean berretsi ostean, bi hilabeteko epean aurkaratu ahal izango da, jakinarazi denetik zenbatzen hasita, Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen 41. artikuluan aipatzen den prozesu-bidea jarraituta.

## IV. KAPITULUA

### KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA

#### 21. artikulua. ORGANO SOZIALAK

**BAT.**- Kooperatibak honako organo sozial hauek izango ditu:

- Batzar Orokorra.
- Kontseilu Errektorea.
- Zaintza Batzordea.

**BI.**- Kooperatibak daukan operatibiterako eta garapenerako egoki irizitako organo guztiak sortu ahal izango ditu, kasu bakoitzean zehaztuko dituen ahalmenekin, legeak beharrezko dituen organoei berariaz esleitutakoak izan ezik.

Zehazki, Administrazio Publikoarekiko hezkuntza-itunen araubidean horri buruz ezarritako baldintzak betetzeko, Kooperatibak beharrezko diren organo guztiak izango ditu eskura.

**HIRU.**- Kooperatibako organoek Legean xedatuta dagoena beteko dute, Estatutu Sozial hauek osagarri dituztela, bai eta Barne Araubideko Erregelamendua ere, halakorik izanez gero, edo Kooperatibaren funtzionamendua behar bezala antolatzeke onetsita dagoen baliozko edozein erabaki.

**LAU.**- Kooperatibak eta haren elkarte-egiturak dauzkaten organoetan Bazkideen presentzia orekatua izatea izango du helburu, eta genero-berdintasunerako neurriak ezarriko dituzte, batez ere bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko bideratutako neurriak.

#### 22. artikulua. BATZAR OROKORRA

**BAT.**- Bazkideek dauzkaten eskumenen inguruko gaiei buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko eratutako bilera da Batzar Orokorra.

**BI.**- Batzar Orokorraren erabakiek eragina izaten dute xedatutako egunetik aurrera, eta Bazkide guztiek bete beharrekoak dira.

**HIRU.**- Batzar Orokorrari soilik dagokio honako erabaki hauek hartzea:

- a) Kontseilu Errektoreko kideak, Zaintza Batzordeko kideak eta likidatzaileak isilpeko bozketa bitartez izendatzea eta izendatzeak baliogabetzea, bai eta horien aurkako erantzukizun-egintzak egikaritzea ere.
- b) Kontu-auditoreak izendatzea eta izendatzeak baliogabetzea, betiere baldin eta horretarako arrazoi zuzena badago soilik.

- c) Elkartearen kudeaketa aztertzea, urteko kontuak eta balantzea onestea, eta soberakinen banaketa edo galeren egozpena adostea.
- d) Ondasun higiezinak eskuratzeko edo besterentzeko proiektuak, inbertsioak edo eragiketak onestea, Kontseilu Errektorearenak soilik ez diren ahalmenetan.
- e) Kontseilu Errektorearenak soilik ez diren ahalmenetan, kreditu, mailegu, leasing, sinadura-berme, eskubide erreal edo bestelako finantza ala ekonomia mailako zorpetze edo konpromisoko eragiketak baimentzea.
- f) Nahitaezko ekarpen berriak, kapitalerako ekarpenek eragingo duten interesa eta sarrerako kuotak edo aldizkakoak ezartzea.
- g) Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen 68. artikuluan aurreikusita dagoen partaidetza-tituluen eta ekarpen berezien betebeharrak edo bestelako finantzaketa-moduak jaulkitzea, Lege horren 62.2 artikuluan ezarrita dagoenari kalterik eragin gabe.
- h) Bigarren mailako edo hurrengo mailako kooperatibak, kooperatiba-taldeak eta antzeko erakundeak eratzea, bai eta horietara atxikitzea eta horietatik bereiztea ere.
- i) Kooperatibaren bat-egitea, zatiketa, eraldatzea eta desegitea.
- j) Estatutuen arabera, Kooperatibaren egitura ekonomikoa, antolamendu-egitura edo egitura funtzionala funtsean aldatzea dakarten erabaki guztiak; halakotzat joko dira honako hauek:
  - Kooperatiba hezkuntza-sare publikoan sartzea.
  - Kooperatibaren aktibo eta pasiboen erdia baino gehiago besterentzea.
  - Kooperatiba merkataritza-sozietate edo sozietate zibil bihurtzea, eta
  - helburu soziala aldatzea, baldin eta Kooperatiba sortarazi zuten jarduerak desagertzea badakar.
- k) Estatutu Sozialak eta Barne Araudiko Erregelamendua onestea edo aldatzea.
- l) Legeak hala ezarrita edo honako Estatutu hauetan hala xedatuta dauden gainerako erabakiak.
- m) Kooperatibaren politikak eta estrategiak onestea, urteroko edo hainbat urteko planetan txertatzeko.

**LAU.**- Batzar Orokorrak Kooperatibarentzat interesgarria den edozein gairi buruz eztabaidatu ahal izango du, baina beste gizarte-organo baten eskumen eskusiboa ez diren gaietan soilik hartu ahal izango ditu nahitaezko erabakiak.

**BOST.**- Lege-arauaren arabera Batzar Orokorrak nahitaez erabaki beharreko egintzen gaineko eskumena ezingo da eskuordetu, Kooperatiba osatzeko prozesuetarako zehazki aurreikusita dagoenean izan ezik, hain zuzen ere artikulua honen Hiru puntuan h) idatz-zatian.

### **23. artikulua. BATZAR OROKORREKO DEIALDIA**

**BAT.-** Batzar Orokorra Kontseilu Errektoreak deituko du, eta Ohikoa edo Ezohikoa izango da.

**BI.-** Ohiko Batzar Orokorra Kontseilu Errektoreak deituko du urtean behin, eta Elkartearen ekitaldia itxi eta hurrengo sei hilabeteetan egin beharko da. Epe hori igaro eta Batzarrik egin ez baldin bada edozein bazkidek eskatu ahal izango dio Kontseilu Errektoreari, notario bitartez edo beste bide fede-emaile bat erabilita, Batzarra egitea abiarazteko. Baldin eta Kontseilu Errektoreak, errekerimendua jaso den egunean zenbatzen hasita hamabost eguneko epean, ez badu deialdirik egin, Bazkideak eskaera egin ahal izango dio Elkartearen egoitzako Merkataritza arloko Epaitegiari; horrek Batzarrerako deialdia egin beharko du, eta batzarburua izendatu. Batzar Orokorrak, epez kanpo deituta ere, ez du ohiko izaera galduko.

Ohiko Batzar Orokorra egingo da, kudeaketa soziala aztertzeko, egokia hala baldin bada urteko kontuak onesteko, soberakinak edo galerak banatzea erabakitzeko, eta bai Gai Zerrendan jasotako gainerako gaiak ere.

Batzarraren eskumeneko beste edozein kontu Gai Zerrendan sartu ahal izango da.

**HIRU.-** Aurreko zenbakikoak ez diren Batzar Orokorrako bilkurak ezohikoak izango dira, noiznahi egingo dira eta Kontseilu Errektoreak deituko ditu, Zaintza Batzordeak hala eskatuta edo boto guztien ehuneko hogeia (%20a) gutxienez ordezkatzeko duten Bazkideek hala eskatuta; horretarako, Kontseilu Errektoreari errekerimendu fede-emailea egingo zaio, eztabaidarako gaiak eta proposamenak jasotzeko Gai Zerrenda izango duena. Baldin eta eskaera jaso eta hogeita hamar eguneko epean Batzar Orokorrerako deialdirik egin ez bada, deialdi judiziala eskatu ahal izango da, aurreko puntuan aurreikusitakoaren arabera.

Ezohiko Batzar Orokorraren aztergai den Gai Zerrendan jasotako kontu guztiak aztertu ahal izango dira, baita Ohiko Batzarrari esleitu zaizkionak ere, baldin eta Ohiko Batzarra behar bezala egin ez bada.

**LAU.-** Batzar Orokorrerako deialdia Elkartearen egoitzan modu nabarmenean jendaurrean jarriko den iragarki baten bitartez egingo da beti, eta Kooperatibak bere jarduerara garatzen duen ikastetxeetako iragarki-tauletan ere jarriko da ikusgai.

Gainera, Kooperatiba bostehun bazkide baino gehiago izatera iritsi baldin bada, deialdia egoitza sozialaren lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari idatzi edo digitaletako batean ere iragarriko da.

Kooperatibak Batzar Orokorraren deialdia jakinaraziko du bere web korporatiboan argitaratutako iragarki baten bitartez, baldin eta Batzar Orokorrak orri hori sortzea erabaki badu eta hori sortzeko erabakia Euskadiko Kooperatiben Erregistroan Kooperatibarentzat irekita dagoen orrian jasota geratu bada. Kontuak horrela izan baldin badira, ez da aplikatuko aurreko paragrafoan ezarritako betebeharrak.

Publizitaterako mekanismo gehigarri moduan, derrigorrezkoa ez den alerta-sistema bat ezarri da, Kooperatibaren web-orrian jarrita dagoena, Kooperatibako Bazkideentzako Gune Pribatuaren edo Intraneten barruan, eta Bazkide bakoitzak bakarrik eta eskusiboki eskuratu ahal izango du; eskuratzeko, Bazkideak berak jo beharko du Kontseilu Errektorera, sarbide-gakoak eskatzeko.

**BOST-** Deialdian, gutxien-gutxienez, adierazi egin beharko dira lehenengo, bigarren eta hirugarren deialdietan bilera egiteko eguna, ordua eta lekua, horien artean ordu erdi igaro beharko da behinik behin, eta Gai Zerrenda behar bezain zehatz eta xehe azalduko da.

Gainera, deialdiaren iragarkian Bazkide guztiek Elkartearen egoitzan eta, halakorik izango balitz, Elkartearen intranetean Gai Zerrendako puntuei dagokien dokumentazioa eta, egokia hala baldin bada, Zaintza Batzordearen txostena aztertzeo duten eskubidea jasoko da.

Kooperatiba ahaleginduko da Batzarra lehenengo edo bigarren deialdian egiten. Hala ere, baldin eta Kooperatibak aurreikusi badu ezingo dela iritsi lehenengo eta bigarren deialdietan aurreikusitako legezko quoruma izatera, hirugarren deialdi bat sartu ahal izango du, eta bigarren deialditik hamabost minutu igaro beharko dira deialdi hori gauzatzeko.

**SEI-** Deialdia gutxienez Batzarra egin baino hamar egun lehenago eta gehienez hirurogei egun lehenago jakinaraziko da.

**ZAZPI-** Elkartearen botoen ehuneko hamar (%10) baino gehiago ordezkatzan duten bazkideek, Kontseilu Errektoreari zuzendutako idazki baten bidez, Gai Zerrendan gai bat edo gehiago sartzeko eskatu ahal izango dute, deialdia iragarri eta hurrengo bost egunetan. Kontseilu Errektoreak horiek barnean hartuko dituen Gai Zerrenda berria argitaratu beharko du, gutxienez legez eskatzen den publizitatearekin, inola ere atzeratu ezingo den Batzarra egiteko eguna baino lau egun lehenago behintzat.

**ZORTZI-** Hala eta guztiz ere, aurreko zenbakietan xedatuta dagoena gorabehera, bilera baliozkoa izango da, eta ez da deialdirik egin beharko, baldin eta Bazkide guztiak bertan badaude edo ordezkaturik badaude eta aho batez erabaki badute Batzar Orokor Unibertsala eratzea, Gai Zerrenda eta bertaratutakoen zerrenda guztiek onetsita eta sinatuta, eta ondoren Bazkide guztiek bertan jarraitzea beharrezkoa izan gabe.

#### **24. artikulua. BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA**

**BAT-** Batzar Nagusia, baldin eta Unibertsal izaerakoa ez bada, egoitza soziala dagoen herrian egingo da, kideak bertaratuta. Estatutuetan beste bilera-leku batzuk ezarri ahal izango dira oro har, edo Kontseilu Errektoreak bilera non egingo den zehazteko jarraitu beharreko irizpideak, hori justifikatzen duen arrazoirik baldin badago.

Batzar Orokorrean parte hartzea presentziala izango da; hala ere, parte hartzea bideokonferentzia bitartez edo antzeko sistema baten bitartez gauzatu ahal izango da, osorik edo zati bat, irudia eta soinua bi norabidetan eta aldi berean komunikatzeko aukera emango duena, bai eta ikusmen, entzumen eta ahozko mailako elkarrekintza ere, betiere baldin eta Kontseilu Errektoreak alde aurretik onetsi badu, Batzarraren deialdian hala jakinarazi badu eta bitarteko horiek baliatuta parte hartu nahi duten pertsonak deialdian ezarritako epean hori eskatu badute.

Kontseilu Errektoreak bertaratze ez-presentziala gauzatzeko sistema ezarriko du, eta honako hauek bermatuko ditu:

- a) Deialdia jaso behar duten pertsona guztiek sartzeko aukera izatea.
- b) Bazkidearen nortasuna egiaztatzea.
- c) Boto-eskubidea erabiltzea eta, aurreikusita dagoenean, hori konfidentziala izatea.
- d) Komunikazioa irudiz eta soinuz noranzko bikoia eta aldiberekoa izatea, bai eta ikusmen, entzumen eta ahozko mailako elkarrekintza ere.
- e) Bazkideek Batzarrean bertara joanda parte hartzeko aukera izatea, baldin eta hori nahi dutela adierazi badute.

Baldin eta Batzarrean parte hartzea bideokonferentzia bitartez edo irudia eta soinua bi noranzkotan eta aldi berean komunikatzea ahalbidetzen duen antzeko beste sistema baten bitartez gauzatu bada, eta ikusmen, entzumen eta ahozko mailako elkarrekintza ahalbidetu bada, Kooperatibak bertan ez diren Bazkideentzako boto-sistema digitala erabili beharko du, botoa sekretua den kasuetan botoa eraginkorra eta konfidentziala izango dela bermatuko duena.

Batzarreko Idazkariak beren-beregi adierazita jasoko du Batzarreko aktan Bazkide bakoitzak Batzarrera sartzeko izango duen sarbide-sistema, bai norbere nortasuna eta borondatea adierazteko erabilitako bitartekoa ere, erabakiak era baliozkoan hartzeko eskatu diren gainerako baldintzekin batera.

**BI.**- Batzar Orokorra balio osoz eratuko da, lehenengo deialdian, botoen gehiengoa osatzen duten Bazkideak bertan edo ordezkaturik daudenean; bigarren deialdian, Bazkideen botoen gutxienez ehuneko hamar (%10) edo ehun (100) boto bertan daudenean, eta hirugarren deialdian, bertaratutako edo ordezkaturiko Bazkideen botoen kopurua edozein dela ere.

Batzar Orokorreko deialdia egin den egunean Bazkide diren guztiek izango dute bertaratze eskubidea.

**HIRU.**- Bertaratzea pertsonala izango da; ez da inork ordezkatzetik izango, honako kasu hauetan izan ezik:

- (a) Bazkideek Batzar Nagusian eskuordetzan utzi ahal izango diete ordezkariak ezkontideari edo ahaidetasuneko lehen mailara arteko beste senitarteko bati, edo jarduteko gaitasun osoa daukan legezko tutoreari.
- (b) Bazkideek aukera izango dute beste Bazkide batzuek ordezkari ditzaten, Batzar Orokor bakoitzean, kasu berezietan.

Batzar Orokor bakoitzean, ordezkari itza egiaztatzeo idazkia eskatuko da. Batzar Unibertsala denean, ordezkari itza egiaztatzeo idazkiak aurreikusitako Gai Zerrenda ere jaso beharko du.

Bazkide batek ere ezin izango du, bere ordezkari itzaz gain, beste bi ordezkari itza baino gehiago izan. Ordezkari itza baliogabetu egin ahal izango da. Ordezkari itza Batzar Orokorrera bertaratzeak baliogabetzeo balioa izango du.

**LAU.**- Batzar Orokorreko burua Kontseilu Errektoreko Lehendakaria izango da, eta, hark joan ezin baldin badu, Lehendakariordea, eta, hark ere bertaratu ezin baldin badu, Batzarrak berak eginkizun hori betetzeo izendatuko duen Bazkidea.

Batzarreko buruari dagokio eztabaidak zuzentzea, erantzule izanik zaintzea ez dadila desbideratzerik izan edo ez daitezela erabakitzeo gai moduan joratu Gai Zerrendan ez dauden gaiak (Legeak berariaz baimendutakoak izan ezik), Batzarraren ordena mantentzea eta legezko formalitateak une oro betetzen ari direla zaintzea.

Idazkari lanak egingo ditu Kontseilu Errektoreko Idazkaria den Bazkideak, edo, hark ezin baldin badu, Batzar Okorrak izendatuko duen Bazkideak.

**BOST.**- Bozketa isilpekoa izango da Legean edo Estatutuetan aurreikusitako kasuetan, betiere bertaratutako eta ordezkari itzako Bazkideen ehuneko hamarra (%10a) ordezkari itzen duten Bazkideek hala eskatuta.

**SEI.**- Gai Zerrendan jasota ez dauden gaiet buruzko erabakiak baliogabeak izango dira, Legeak berariaz baimendutako kasuetan izan ezik.

**ZAZPI.**- Kontseilu Errektoreko kideek Batzar Orokorrerara joan beharko dute. Zuzendari Gerentea ere bertaratu beharko da. Kontseilu Errektoreak, Bazkide izan ez arren, bertaratzea egokitza jo duen pertsonak joan ahal izango dira.

Batzar Okorrak beste edozein pertsona bertaratzeo baimena eman ahal izango du.

**ZORTZI.**- Idazkariak idatziko du bilkurako akta. Akta horretan honako hauek guztiak adieraziko ditu: non eta noiz egin den, deialdia egiteo eguna eta modua zein izan den, deialdiaren testu osoa, bertaratutako Bazkide-kopurua, bertatik bertara edo ordezkari bat izendatuta parte hartu duten, nor parte hartu duen telematikoki eta zein sistemaren bitartez, lehenengo, bigarren edo hirugarren deialdia izan al den, eztabaidatu diren gaien laburpena, aktan idatziz jasotzeo eskaera eginda jaso diren hitza-hartzeak, hartu diren erabakien edukia, bozketen emaitza, erabaki bakoitza hartzeo erabili diren gehiengoak adierazita, akta onestea, baldin eta bilera amaitu denean egin bada. Aurka bozkari itzako duenak eskatzen duen guztietan, hura erabakien aurka izan dela jasoko da.

Bertaratutakozen zerrenda aktaren hasieran bertan agertuko da, edo aktari erantsiko zaio, Idazkariak Lehendakariaren oniritziarekin sinatutako eranskinaren bitartez. Bertaratutakozen zerrenda fitxategi bidez ere osatu ahal izango da, edo euskarri informatikoan sartu, merkataritzaoko erregistroaren erregelamenduan izaera horretako sozietateentza ezarrita dauden betekizunekin.

Batzarrak berak onetsi ahal izango du akta, Batzarra egin ostean jarraian, edo, hori egin ez baldin bada, hamabost eguneko epearen barruan nahitaez, Lehendakariak eta Batzarrak izendatutako bi Bazkidek sinatuta; jakina, Idazkariak berak ere sinatu egingo du.

Batzarrera joan den edozein lagunek aktaren edo hartutako erabakien testu osoaren ziurtagiriak eskatzeko eskubidea izango du. Ziurtagiri horiek egiteko egunean Idazkaria denak egingo ditu, Lehendakariaren oniritziarekin.

**BEDERATZI**.- Erabakiak hartuko diren unetik aurrera izango dituzte berez dagozkien ondorioak.

**HAMAR**.- Inskriba daitezkeen erabakiak Euskadiko Kooperatiben Erregistroan aurkeztu beharko dira, akta onartu eta hogeita hamar (30) eguneko epean.

## **25. artikulua. BOTOA EMATEKO ESKUBIDEA**

**BAT**.- Bazkide bakoitzak boto bat eman ahal izango du, bateko balioa izango duena.

Bazkide Laguntzaileek boto guztien ehuneko bost (%5) izango dute gehienez. Hala ere, baldin eta, gerta daitezkeen inguruabarrengatik, Batzarrerako deialdia egin den egunean Bazkide Laguntzaileen kopurua ehuneko bostetik gorakoa bada (%5), botoen guztizko balioa ehuneko horretara mugatuta geratuko da. Kasu horretan, Bazkide Laguntzaile bakoitzaren botoaren balioa bakoitzari dagozkion botoen ehunekoaren eta Bazkide Laguntzaileen kopuruaren arteko zatiketaren emaitzatik aterako da.

**HIRU**.- Bazkideak ezin izango du eskubide hori baliatu honako interes-gatazka hauetan:

- (a) hartu beharreko erabakiak zuzenean edo hari bakarrik eragiten dionean, espedientatutako gehiengoaren parte denean izan ezik, eta
- (b) Kooperatibak gauzatutako erantzukizun-egintza bateko subjektua denean.



## **26. artikulua. GEHIENGOAK**

**BAT.-** Batzar Orokorraren erabakiak baliozko eran emandako botoen gehiengo soiluz hartuko dira. Ondorio horietarako, boto zuriak eta abstentzioak ez dira zenbatuko. Salbuespen izango dira Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak edo honako Estatutu Sozial hauek gehiengo indartua ezarri duten kasuak.

**BI.-** Edonola ere, bertaratutako eta ordezkaturako botoen bi herenen gehiengo indartua beharko da honako hauek erabakitzeko: eraldatzea, bat-egitea, zatitzea, desegitea, bai eta, Estatutuen arabera, Kooperatibaren egitura ekonomikoa, antolamendukoa edo funtzionala nabarmen aldatzea eta Estatu Sozialetako artikulua hori aldatzea eragingo duen edozein erabaki ere, baldin eta bertan dauden eta ordezkaturako botoen kopurua Kooperatibaren boto guztien ehuneko hirurogeita hamabost (%75) baino txikiagokoa bada.

**HIRU.-** Baldin eta Kontseilu Errektoreko kideak kargutik kentzeko erabakia Gai Zerrendan agertu ez bada, bertaratutako eta ordezkaturako botoen bi herenen aldeko botoa beharko da.

## **27. artikulua. BATZAR OROKORRAREN ERABAKIEN AURKA EGITEA**

**BAT.-** Batzar Orokorraren erabakien aurka jo ahal izango da, baldin eta Legearen aurkakoak badira, Estatutuen aurkakoak badira edo Kooperatibaren interesak urratuko baditu, Bazkide baten edo batzuen edo hirugarrenen mesederako.

Ez da egokia izango ondorioz gabe utzitako edo baliozko eran beste batekin ordezkaturako akordio bat aurkaratzea.

**BI.-** Erabakien aurka egiteko egintzak erabiltzeko legitimatuta daude ondorengo hauek:

- (a) Bazkide guztiak,
- (b) Kontseilu Errektoreko kideak,
- (c) Zaintza Batzordeko kideak,
- (d) lege bidezko interesa daukan hirugarren bazkidea ez den edozein pertsona.

Aurkaratzeko egintza urtebeteko epean iraungiko da, arrazoi edo eduki jakin bat izateagatik ordena publikoaren aurkakoak diren akordioak izan ezik.

**LAU.-** Artikulu honetan aurreikusitako iraungitze-epeak erabakia hartzen den egunetik aurrera zenbatuko dira, edo, inskribagarria baldin bada, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu den egunetik aurrera.

**BOST.-** Oro har, aurkaratzeko prozedura Kapital Sozietateei buruzko Legean ezarritako arauetara egokituko da, honako salbuespen honekin: demandako idazkian aurkaraturako erabakia etetea eskatzeko, eskatu duena Zaintza Batzordea edo 50 bazkide baino gehiagoko Kooperatibetan botoen %10 ordezkatzeko duen Bazkide kopurua izatea gutxienez, 10 Bazkideetik 50era bitarteko Kooperatibetan %15eko kopurua, eta 10 bazkide baino gutxiagoko kooperatibetan %20eko kopurua.

**SEI.-** Aurkaratzeko egintza baietsiko duen epaiak bazkide guztientzat izango ditu ondorioak, baina ez die eragingo aurkaratutako erabakiaren ondorioz fede onez Bazkideak ez diren hirugarrenek eskuratutako eskubideei. Baldin eta aurkaratutako erabakia Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta badago, epaiak hori ezereztea eragingo du.

## **28. artikulua. KONTSEILU ERREKTOREA. IZAERA ETA ESKUMENAK**

**BAT.-** Kontseilu Errektoreari soilik dagokio, organo elkargokidea izanik, Kooperatiba kudeatzea eta ordezkatzeta, eta, gainera, baliatu egingo ditu Legeak edo honako Estatutu hauek berariaz azaldutakoaren arabera beste organo sozial batzuek eskura ez dauzkaten ahalmen guztiak.

**BI.-** Kontseilu Errektorearen eskumenekoak dira ondorengo ahalmen espezifiko hauek:

- a) Bazkideak onartzea eta haiei baja egitea erabakitzea, Estatutu hauetan aurreikusita dagoenaren arabera.
- b) Mota guztietako egintza eta kontratuetan Kooperatibaren ordezkari izatea, eskuordetzeko ahalmenarekin, batik bat parte hartzen duen erakundeetako organo sozialetan.
- c) Zuzendari kudeatzailea izendatzea, hautaketa-prozesua egin ostean, eta hark proposatuta, hezkuntza-zikloetako arduradunak izendatzea. Izendapenak Bazkideei aurkeztuko dizkiete, beranduenera ere hurrena egingo den lehenengo Batzarrean.
- d) Langileak kontratatzeke eta kaleratzeko erabaki-ahalmenak erabiltzea, lan-esparruan ezarritako prozedurak errespetatzeari kalterik eragin gabe.
- e) Langileen ekonomiako eta lankidetzako baldintzak hitzartzea.
- f) Estatutuetako eskubide eta betebeharrekin, lanaren antolaketarekin eta Bazkideen laneko eta diziplinako araubidearekin lotuta dauden gaiiei buruz erabakitzea.
- g) Kooperatibaren eguneroko jarduna antolatu, zuzendu, kudeatu eta ikuskatzea, eta, Batzar Orokorra jakinaren gainean izan dadin, haren aurrean epe luzerako urteko kudeaketa-planak eta plan estrategikoak aurkeztea, Kontseilu Errektoreak onetsi ostean, Kooperatibaren politika eta estrategia orokorrei buruzko proposamenekin batera.
- h) Kontseilu Errektorea osatzen duten kideen uko-egiteei, lanpostu hutsen ordezkapenei eta, oro har, organoaren beraren barne-arautze funtzionalari buruz bidezkoa dena erabakitzea, bai eta dagozkion eta/edo bere eskumenekoak diren erabakiak baliogabetzeko egintzak gauzatzea ere.
- i) Kooperatibaren Estatutu Sozialetan eta Barne Araubideko Erregelamenduan egokitzen jeta dauden aldaketak Batzar Orokorrari proposatzea.
- j) Estatutuetako zein erregelamenduetako aginduak behar bezala aplikatzeko edo Batzarraren erabakiak betearazteko beharrezkoak diren araudi funtzionalak onestea.

- k) Elkaratearen xedea betetzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren egintzak burutzea eta kontratuak sinatzea, salbuetsi gabe ondasun higiezinak eskuratzeari edo besterentzeari buruzkoak, eskubide errealak eratzeari buruzkoak, hipotekenak barne, eta errentamenduko bereziari buruzkoak, eta honako Estatutu hauek Kooperatibari baimentzen dizkioten eta Batzar Orokorraren eskumenekoak soilik ez diren era guztietako negozioak eta eragiketak ebatzea.
- l) Kooperatibari komeni zaizkion eta Batzar Orokorraren eskumenekoak soilik ez diren kreditu, mailegu edo sinadura-bermeko eragiketak adostea.
- m) Abalak ematea erakunde publiko eta pribatuen aurrean, bai eta zuzenbidean onartuta dauden edozein eratako titulu, zor publiko edo balore higigarri edo higiezin erosi, saldu, harpidetu eta gordailutzea ere, baita horietan egoki irizten dion moduan eragitea ere.
- n) Ekarpinak harpidetzeko eta Bonu eta Obligazioak jaulkitzeko beharrezkoa dena zehaztea, Batzar Orokorrak erabakita daukanaren arabera.
- o) Erabilgarri dauden funtsen inbertsio zehatza erabakitzea, aurrekontuak osatzea, gastuak baimentzea eta Kooperatibaren ahaldunak eta ordezkariak izendatzea, une bakoitzean ematea egoki iritziko dion ahalmenekin.
- p) Urteko Kontuak Ohiko Batzar Orokorraren aurrean urtero aurkeztea, eta proposatzea soberakin garbien banaketa, edo, egokia hala baldin bada, galerak leporatzea, bai eta Bazkide berrien hasierako nahitaezko ekarpinak, aldizkako kuotak eta aparteko kuotak zehazteko proposatzea ere.
- q) Batzar Orokorrarako deialdia egitea, horiek prozesatzean sortzen diren arazoak ebatzea eta erabakiak betearaztea.
- r) Kooperatibak epaitegi eta auzitegi arruntetan edo berezietan eta Espainiako estatuko, lurralde-administrazio autonomoetako, probintziako edo udalerriko bulego, agintari, korporazio edo organismoetan dauzkan eskubide edo akzioak erabiltzeari buruz egoki irizten diona erabakitzea, bai eta errekurso arruntak eta apartekoak jartzeari buruz ere; horretarako, Kooperatibaren ordezkari eta defentsa euren gain hartuko duten ordezkari, prokuradore edo letraduak izendatuko ditu, eta, beharrezkoa den moduan, dagozkien ahalmenak helaraziko dizkie; orobat emango dizkie ahalmenak adiskidetzetan, espedienteetan, auzietan, erreklamazioetan, errekursoetan edo edozein motatako jarduketetan eta edozein prozedura-egoeratan parte hartzeko eta atzera egiteko, horiek etetea eskatzeko eta behar den guztirako, are judizialki zabaltasun osoz onartzeko ere.
- s) Elkaratearen funtsak eta ondasunak xedatzea, erreklamatzeko, jasotzea eta kobratzea, bai partikularrei, bai bulego publikoei, Kutxa Orokorreko gordailuak eratuz edo kenduz, eta Elkaratearen interesei komeni zaien lekuan. Bankuko kontu korranteak eratzea, eskudirutan, kredituetan edo baloreetan egindakoak, eta horietatik eskudirua edo baloreak ateratzea, eta, oro har, era guztietako banku-eragiketak egitea Espainiako edo atzerriko erakundeekin, baita Espainiako Bankuarekin ere.
- t) Korrespontsalen eskuetan dauden Kooperatibaren funtsak eta ondasunak erabilgarri izatea. Kanbio-letrak, agindupeko ordaintzekoak eta merkataritzako eta igorpeneko gainerako efektuak igortzea, endosatzea, abalatzea, onartzea eta protestatzea, onartu edo ordaindu ezagatik, eta seguruago jokatzearen alde.

- u) Batzar Orokorrari proposatzea, egokia hala baldin bada, Kooperatibaren lehiaketako eta desegiteko adierazpena, eta bere eskumenekoak diren hurrenez hurreneko prozesuetako fase guztiak betetzea.
- v) Estatutu hauen interpretazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak argitzea, lehenengo egingo den Batzar Orokorrean horren berri emanez.
- w) Honako Estatutu hauetan bereziki jasotakoak.
- x) Kooperatibari sinadura elektronikoa eskatzea, eta haren izenean eta hura ordezkatzeko erabiltzea, erabil daitezkeen ekitaldi guztietan.

**HIRU.-** Kontseilu Errektorearen aurreko ahalmen-zerrenda adierazteko asmoz egina da soilik, eta ez ditu haren ahalmenak mugatzen, Legeak eskumenak bereziki Kooperatibako beste gizarte-organo batzuen esku bakarrik utzi ez dituen egokiera guztietan.

**LAU.-** Kontseilu Errektoreari emandako ahalmenei kalterik eragin gabe, Batzar Orokorraren onespena nahitaezkoa izango da honako kasu hauetan:

- (1) Berrogeita hamar mila eurotik (50.000 €) gorako proiektuak eta inbertsioak.
- (2) Berrogeita hamar mila eurotik (50.000 €) gorako ondasun higigarriak eta higiezinak erosteko edo besterentzeko eragiketak.
- (3) Kreditu, mailegu, leasing, sinadura-berme edo eskubide errealeko eragiketak, edo berrogeita hamar mila eurotik gorako beste edozein zorpetze edo konpromiso ekonomiko (50.000 €).

Premia eta beharizana dagoen egoera bizi denean, bi hereneko gehiengo kualifikatuarekin, Kontseilu Errektoreak paragrafo honetan ezarritako mugak gainditzen dituzten proiektuak edo eragiketak egin ahal izango ditu, aldeztu aurretik Batzar Orokorraren baimenik izan gabe. Horrelako egoeretan, Kontseilu Errektoreak ahalik eta arreta handienaz jokatu du, eta hartutako erabakiak eta erabaki horiek justifikatuko dituzten arrazoiak Bazkideei jakinaraziko dizkie, hurrena egingo den lehenengo Batzar Orokorrean.

**BOST.-** Kontseilu Errektoreak ahalordetze orokorrak eman eta atzera bota ahal izango dizkio zuzendaritzako edo gerentziako arduradun bati edo batzuei; ahalmen horiek ahalordetze-eskrituran emandakoak izango dira, eta Kooperatibaren ohiko trafikoari buruzkoak soilik izango dira. Bai izendatzea, bai ahalordetzea eta bai atzera botatzea Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko dira. Kontseilu Errektoreak ere ahalorde bereziak eman ahal izango dizkio edozein pertsonari.

Kontuak erabiltzeari buruzko ahalmenak ondorengo muga hauen arabera baliatuko dira:

- 3.000 euro baino gutxiagoko eragiketak: Kontseilu Errektoreak, gehiengo kualifikatu bidez, ahaldunei ahalmena eman ahal izango die kontuak modu solidarioan edo mankomunatuan erabiltzeko, egoki irizten dion erara.
- 3.001 euro baino gehiagoko eragiketak: bi ahalduen edo eskuordetutako ahalmenak dauzkaten pertsonen sinadura mankomunatua beharko da.

**29. artikulua. KONTSEILU ERREKTOREAREN OSAERA, HAUTAKETA, KARGU- UZTEAK ETA LANPOSTU HUTSAK**

**BAT.-** Honako Estatutu hauen arabera bateraezintasunetan edo eskubideak eteteko kontuetan nahastuta ez dabilzan Bazkide Erabiltzaileen artean, Batzar Orokorrak Kontseilu Errektorea osatuko duten zortzi (8) pertsona izendatuko ditu isilpeko bozketan, eta horietatik hiru (3) Lehendakaria, Lehendakariordea eta Idazkaria izango dira, hurrenez hurren. Horiek izendatzeko garaian, ordezeko 4 kide aukeratuko dira, karguak behin betiko hutsik geratuz gero izendatuak ordezkatzeko dituztenak, Estatutuen arabera geldituko zaien denboran.

Kontseilu Errektoreak berak izendatuko ditu bertako kideen artean Lehendakari, Lehendakariorde eta Idazkari karguak beteko dituzten pertsonak.

Kooperatibak ahaleginak egingo ditu organo horretan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izan dadin, eta oreka hori lortzen lagunduko duten neurriak sustatuko ditu, baldin eta bete ezin badu.

Agintaldia lau urtekoa izango da, eta zatika berrituz joango da, bi urtean behin erdi bana berrituta, karguak berriz hautatu ahal izateko aukerarekin.

Agintaldia igarota, Kontseilu Errektoreko kideek (edo "Kontseilariak") karguan jarraituko dute, harik eta Batzar Orokorrak hautatuko dituen kide berriek kargua onartuko duten arte. Izendatu ostean, hilabeteko epearen barruan onartu beharko da kargua.

**BI.-** Kontseilarien izendapenak onartu diren unetik aurrera izango du eragina izendatze horrek, eta Kooperatiben Erregistroan inskribatzeko aurkeztuko da, izendatzea onartzearen hurrengo hogeita hamar (30) eguneko epean.

**HIRU.-** Kontseilariak karguari uko egiteko, arrazoiak eman beharko dituzte, eta uko egitea idatziz jakinarazi beharko diote Kontseilu Errektoreari; horrek erabaki beharko du uko egiteko alegatutako arrazoiak justifikatua den ala ez, eta idatziz jakinarazi beharko dio interesdunari.

Uko egin duen Kontseilariak jakinarazpenean ezarritakoa izango da uko egitearen ondorioak eragiten hasteko data, eta inola ere ezingo da izan jakinarazpeneko eguna baino lehenagokoa.

Edozein arrazoigatik gertatutako Kontseilarien kargu-uzteak Kooperatiben Erregistroan inskribatuko diren egunetik aurrera izango ditu ondorioak hirugarrenen aurrean.

Kontseilariak uko egiteaz Kontseilu Errektoreak emandako kalifikazioaren aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Batzar Orokorrean, nahitaezko baja emateko ezarritako baldintza eta epe berberetan.

Baldin eta Kooperatibak uko egitea justifikatu gabekotzat jo badu, egokia den kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango die Kontseilariari.

**LAU.-** Ezintasuna eta debekuak:

Ezin izango dira Kontseilu Errektoreko kide izan ondorengo hauek:

- (a) Emantzipatu gabeko adingabeak, judizialki ezinduta daudenak, Konkurtso Legearen arabera konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitasun-

- aldia amaitu arte desgaituta daudenak, eta askatasunaren, ondarearen edo ordena sozioekonomikoaren aurkako delituengatik, segurtasun kolektiboaren aurkako delituengatik, Justizia Administrazioaren aurkako delituengatik edo edozein motatako faltsutasunagatik kondenatuta daudenak, bai eta daukaten karguagatik merkataritzan jardun ezin dutenak ere.
- (b) Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioak eta langileak, ardurapekoak dituzten eginkizunak izanik, kasuan kasuko sozietateen berezko jarduerekin lotuta daudenak, epaileak, magistratuak eta legezko bateraezintasunen bat daukaten gainerako pertsonak.
  - (c) Euren kontura edo besteren kontura Kooperatibaren jarduerarekin lehian dauden jarduerak egiten dituztenak, edo edozein erataria Kooperatibaren interesen aurkakoak egiten dituztenak, kalterik eragin gabe Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 49.4 artikuluan ezarritakoari.
  - (d) Zaintza Batzordeko kideak direnak eta Zuzendari Gerentearen kargua betetzen duten pertsonak.

Artikulu honetako edozein ezintasun edo debekuren eraginaren menpe dagoen Kontseilariak berehala dimititu beharko du. Hala ere, aldi baterako kargutik kendu ahal izango du Kontseilu Errektoreak, harik eta Zaintza Batzordeak, edo halakorik izan ezean Kontseilu Errektoreak, hurrengo Batzar Orokorra egin arte. Batzar Orokorrak, kautelazko etendura gertatu denean edo Bazkideetako edozeinek hala eskatuta, Kontseilaria kargutik kenduko du, aurreko zenbakiko c) idatz-zatian aurreikusitako kasuan izan ezik; kasu horretan, Batzar Orokorrak askatasunez erabaki ahal izango du Kontseilaria kargutik kentzea edo hark jarraitzea.

### **30. artikulua. KONTSEILU ERREKTOREAREN FUNTZIONAMENDUA**

**BAT.-** Oporraldietan izan ezik, Kontseilu Errektorea hilean behin elkartuko da gutxienez, eta beste bilera batzuetan ere bai, Kontseilu Errektoreko kideek adostasunez hala erabaki dutenean. Bileretan, Kontseiluaren eskumenekoak diren gai guztiak aztertu eta erabaki ahal izango dira.

**BI.-** Kontseilu Errektorearen bileretarako deialdia Lehendakariak egingo du, idatziz, Kontseiluko kide bakoitzari zuzenduta.

Baldin eta aurreko paragrafoan aurreikusitako ezohiko deialdirako eskabidea Lehendakariak zazpi eguneko epean artatu ez badu, eskaera arrazoitua egin dutenek Kontseilu Errektorea deitu ahal izango dute, betiere baldin eta Kontseilu Errektorea osatzen duten pertsonen erdiak baino gehiagok gutxienez bat egitea lortu badu.

**HIRU.-** Kontseilu Errektorea behar bezala eratuta geratuko da bilerara kideen erdiak baino gehiago bertaratu direnean. Bertaratzea pertsonala eta eskuordetu ezina izango da, ezin izango baita ordezkartzarik izan, eta erabakiak bertara joan diren eta han ez dauden Kontseilarien gehiengo soilez hartuko dira. Boto zuriak eta abstentzioak ez dira zenbatuko. Kontseilari bakoitzak boto bat eman ahal izango du.

Kontseilu Errektorean aurrez aurre parte hartuko da; hala ere, parte hartzea bideokonferentzia bidezko sistema baten edo antzeko sistema baten bitartez gauzatu ahal izango da, irudia eta soinua bi norabidetan eta aldi berean komunikatu ahal izateko, bai eta ikusmen, entzumen eta ahozko mailako elkarrekintza ere, betiere baldin eta aldeztatik Kontseilu Errektoreak onetsi badu, deialdian hala jakinarazi badu eta bitarteko horien bidez parte hartu nahi duten kideek deialdian ezarritako epean hala eskatu badute.

Kontseilu Errektoreko kideren batek organo horren bileretan parte hartu ezker, eta aurreko paragrafoan adierazitako moduan bere borondatea adierazi ezker, Idazkariak aktan berariaz jasoko du haren nortasuna eta horretarako erabilitako bitartekoa, erabakiak baliozko eran hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzekin batera.

**LAU.**- Kontseilu Errektoreak bere baitan Batzorde Betearazle bat edo Kontseilari Ordezkarri bat izendatu ahal izango du. Horretarako, kideen bi herenek aldeko botoa eman beharko dute eta notarioaren aurrean formalizatu beharko da izendapena, baina ez du eraginik izango Kooperatiben Erregistroan inskribatu arte.

**BOST.**- Lehendakariak eta Idazkariak sinatutako bileraren aktan labur jasoko dira eztabaidak, erabakien testua eta bozketen emaitzak.

**SEI.**- Kontseilu Errektoreko Lehendakariari dagozkio honako eginkizun hauek:

- a) Kontseilu Errektoreetako deialdiak idaztea eta bideratzea.
- b) Era guztietako kontuetan Kooperatiba ordezkatzea, Kontseilu Errektorearen izenean, eta Kontseilu horren eta Batzar Orokorren bileretako buru izatea.
- c) Ahalordeak ematea eta agiriak izenpetzea, publikoak zein pribatuak, Batzar Orokorrek edo Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiak bete daitezzen.
- d) Erabakiak hartzerakoan Kontseilu Errektorean berdinketarik gertatuz gero, bere botoarekin ebaztea.
- e) Presako izaera duten erabakiak hartzea, eta erabaki horien berri berehala ematea hurrena egingo den Kontseilu Errektorearen lehenengo bileran.
- f) Kontseilu Errektoreak agintzen dizkion ekintzak, kudeaketak eta zereginak gauzatzea.
- g) Ordezkaritza-eginkizunak Lehendakariordeari eskuordetzea, berak ezin badu bertaratu edo horretarako arrazoi justifikaturen bat baldin badago.

**ZAZPI.**- Lehendakaria ez dagoenean, Lehendakariordeak ordezkatuko du, eta Lehendakariari esleitutako eginkizunak beteko ditu behin-behinean. Era berean, Kontseilu Errektoreak eta Lehendakariak aginduko dizkieten lanak eta kudeaketak burutuko ditu, bereziki Lehendakariak Kontseilu Errektoreko beste kide batzuen esku utz ditzakeen kudeaketak.

**ZORTZI.**- Idazkariak honako eginkizun hauek izango ditu:

- a) Espedienteak osatzea eta horiekin behar diren izapideak egin.
- b) Lehendakariak eta Lehendakariordeak soilik sinatu beharrekoak ez diren gutunak eta dokumentuak sinatu.
- c) Batzar Orokorretako deialdiak idatzi eta bideratu.
- d) Lehen aipatutako organoen bilkuretako aktak egin.

- e) Batzar Orokorraren eta Kontseilu Errektorearen artxiboaren, erregistro-liburuen eta akta-liburuen gordailuzaina izan.
- f) Kooperatibaren liburuei eta dokumentuei buruzko ziurtagiriak egin, Lehendakariaren oniritziarekin.
- g) Kontseilu Errektoreak esleitu dizkionak.

Baldin eta Idazkaria Kontseilu Errektorearen bilkura batean ez badago, Kontseilu Errektoreko beste kide batek ordezkatu du.

### **31. artikulua. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEEN ERANTZUKIZUNAK ETA ERANTZUKIZUN EGINTZAK**

**BAT.-** Kontseilu Errektorea osatzen duten pertsonak ez dute berariazko ordainsaririk jasoko daukaten karguagatik, bete behar dituzten eginkizunak doan egitekoak baitira, eginkizun horiek betetzean izan ditzaketen gastuengatik konpentsazio ekonomikoak jasotzeari kalterik eragin gabe.

**BI.-** Kontseilu Errektorea osatzen duten kideek enpresaburu ordenatu baten prestasunez bete beharko dituzte dagozkien karguak eta bete egin beharko dituzte legeek eta Estatutu Sozialek ezarritako betebeharrak, aintzat hartuta karguaren izaera eta bakoitzari esleitutako eginkizunak, eta Kooperatiba behar bezala kudeatzeko eta ordezkatzeko behar diren neurriak hartuta.

Ordezkaritza baten leialtasunez beteko dute kargua, eta fede onez jardungo dute Kooperatibaren interesak ahalik eta ondoen zainduz, dauzkaten ahalmenak eman zaizkien helburuetarako soilik erabilia, ez beste batzuetarako.

**HIRU.-** Kontseilariak konfidentzialak diren datuak isilpean gorde beharko dituzte, are dauzkaten eginkizunak amaitu ostean ere, legeak horretarako aukera ematen edo eskatzen duenean izan ezik.

**LAU.-** Kontseilariak ez dute garatuko Kooperatibarekiko lehia izan daitezkeen norbere konturako edo besteren konturako jarduerarik, edo, beste edozein eratarik, Kooperatibaren interesekin gatazka eragin dezakeenik ere ez.

Gatazka-egoera horietan nahastuta dauden Kontseilariak ezingo dute gaiari dagokion bozketan parte hartu.

Aipatutako baimenik gabe egindako egintzak, kontratuak edo eragiketak baliogabetu ahal izango dira, Bazkideak ez diren hirugarrenek fede onez eskuratutako eskubideak salbuetsita geratuz.

**BOST.-** Enpresa-ahalmenaren mende dauden erabaki estrategikoen eta negozio-erabakien esparruan, enpresaburu ordenatu baten prestasun-estandarra betetzat joko da Kontseilariak fede onez eta interes pertsonalik gabe jardun duenean erabaki beharrekoa den gaian, informazio nahikoarekin eta funtzionamendu egokiko jardunaren baitan.



Kooperatibarekin interes-gatazka dagoen edo egon daitekeen erabakiak ez dira enpresaren ahalmenaren barruan sartutakotzat hartuko.

**SEI.**- Kontseilariak erantzukizuna izango dute, engainua edo errua tartean izan baldin bada, Legearen edo Estatutu Sozialen aurkako egintzengatik edo karguari berez dagozkion betebeharrak ez betetzeagatik eragindako kalteetan.

Erantzukizun solidarioa izango dute egintza gauzatu edo erabaki kaltegarria hartu duen organoa osatzen duten pertsona guztiek, horretatik salbuetsita frogatu dutenak erabaki horren berri ez zutela, erabaki hori hartzen edo betearazten esku hartu gabe, edo, horren berri jakinda, ahal zuten guztia egin zutela kaltea saihesteko, edo, gutxienez, berariaz aurka jo zutela.

Inori ez dio erantzukizunik kenduko egintza edo erabaki kaltegarria Batzar Orokorrak hartu, baimendu edo berretsi izanak.

**ZAZPI.**- Kontseilu Errektorea osatzen duten pertsonen aurkako erantzukizuneko egintza soziala Kooperatibak gauzatu ahal izango du, aldeztatik Batzar Orokorrak gehiengo arruntez hala erabaki baldin badu, Gai Zerrendan ez jaso arren. Batzar Orokorrak edozein unetan onartu edo ukatu ahal izango du egintza. Horrek erantzukizun-egintza sustatzeko hartutako erabakiak eragin dien Kontseilariak automatikoki kargutik kentzea ekarriko du.

Baldin eta Kooperatibak ezin badu erantzukizun-egintza hiru hilabeteko epean gauzatu, gaiari dagokion erabakia hartu den egunetik zenbatzen hasita, edozein Bazkidek betearazi ahal izango du. Halaber, gutxienez botoen ehuneko hogeiei (%20) ordezkatzen duten Bazkideek erantzukizun-egintza abiarazi ahal izango dute interes soziala defendatzeko, baldin eta Kontseilariak ez badute asmo horrekin eskatutako Batzar Orokorrerako deialdirik egin.

**ZORTZI.**- Erantzukizun hori eragin duten gertaeren egunetik bi urtera preskribatuko da egintza, edo horren berri izan den egunetik bi urtera.

**BEDERATZI.**- Aurreko zenbakietan xedatuta dagoena gorabehera, salbuetsi egingo dira, Kontseilu Errektoreko kideen egintzen ondorioz, Bazkideen eta bazkideak ez diren hirugarrenen interesak zuzenean kaltetu ostean, horiei dagozkien banakako egintzak.

### **32. artikulua. ERABAKIAK AURKARATZEA**

**BAT.-** Kontseilu Errektorearen erabakien aurka jo ahal izango da, baldin eta Legearen aurkakoak badira, Estatutuen aurkakoak badira edo Kooperatibaren interesak urratu badituzte, Bazkide baten edo batzuen edo hirugarrenen mesederako.

Ez da egokia izango ondorioz gabe utzitako edo baliozko eran beste batekin ordeztutako akordio bat aurkaratzea.

**BI.-** Aurka egiteko egintzak erabiltzeko legitimatuta daude ondorengo hauek:

- a) Bazkide guztiak, berria jakin eta hurrengo hirurogei (60) eguneko epean, baldin eta erabakia hartu zenetik urtebete igaro ez bada,
- b) Kontseilariak, erabakia hartu eta hurrengo hirurogei (60) eguneko epean,
- c) Zaintza Batzordea, b) idatz-zatian adierazitako epe berean.

**HIRU.-** Aurkaratzeak aurreikusitako ondorioak izango ditu, eta Batzar Orokorraren erabakia aurkaratzeko ezarrita dagoenaren arabera izapidetuko da.

### **33. artikulua. ZUZENDARITZA. IZENDAPENA ETA KARGU-UZTEA**

**BAT.-** Kontseilu Errektoreak zuzendari kudeatzaile bat izendatu ahal izango du, aldeztatik hautatzeko prozesua egin ostean, eta emaitza Kooperatibako Bazkideei jakinaraziko zaie.

**BI.-** Zuzendari Gerentearen izendapena eta eginkizunak honako arau hauen mende egongo dira:

- a) Kontseilu Errektoreak eskuordetuko ditu horren eskumenak beti, eta etengabe eta zuzenean kontrolatuko ditu, aipatutako organo sozialak onetsitako kudeaketako helburuak betetzea exijituz.
- b) Kooperatibaren kudeaketa arruntari dagozkion kontuak Zuzendari Gerentearen eskumenekoak dira, eta Kooperatibari interesatzen zaizkion egintza guztiak egingo ditu, Kontseilu Errektorearen izenean, helarazi dizkieten gaitasun eta ahalmenen barruan.
- c) Kontseilu Errektorearentzat aurreikusitako erantzukizun-arauak aplikatuko zaizkie, nahiz eta erantzukizun-egintza, gainera, aipatutako organo sozialak egikaritu ahal izango duen, Batzar Orokorraren erabakien aurka jotzeko ezarritako epe beraren barruan.
- d) Ezin izango dira Zuzendari Gerente izan Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako debekuak eta bateraezintasunak dauzkaten pertsonak, ez eta Kooperatibako organo sozialen bateko partaide diren pertsonak ere.

**HIRU.-** Izendapena eta kargu-uztea Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dira, eta emandako ahalmenen ahalordetze-eskritura ere bai. Kontseilu Errektoreak Zuzendari Gerentea kargutik kentzea erabaki dezake, hitzartutako epea baino lehen.

### **34. artikulua. ZAINTZA BATZORDEA. OSAERA, AGINTALDIA ETA IZENDAPENA**

**BAT.-** Batzar Orokorrak Zaintza Batzordea osatuko duten hiru kide izendatuko ditu, isilpeko bozketan, honako Estatutu hauen arabera bateraezintasunik edo eskubide-etenik ez daukaten Bazkide erabiltzaileen artean hautatuta, bai eta horien ordezkoeak ere, 5 urteko eperako. Kooperatiba saiatuko da organo horren osaera emakumeen eta gizonen kopuruan orekatua izan dadin.

**BI.-** Zaintza Batzordeko kideak berriro hautatu ahal izango dira, eta Kontseilu Errektoreko kideentzat bai Legean eta bai honako Estatutu hauetan ezarrita dauzkaten erantzukizun, ezintasun, debeku, ordainsari eta inskripzio arauak bete beharko dituzte.

### **35. artikulua. INFORMAZIO-ESKUBIDEA**

**BAT.-** Kontseilu Errektoreak hiru hilean behin emango dio Zaintza Batzordeari Kooperatibaren jardueren eta aurreikusitako bilakaeraren berri.

**BI.-** Zaintza Batzordeak dagozkion eginkizunak betetzeko egokitzat jo dituen egiaztatze guztiak egin ahal izango ditu, eta egiaztatzeko lanak kide baten edo batzuen esku utzi ahal izango ditu, edo adituen laguntza eskatu ahal izango du, baldin eta aurrekoetako inor aditua ez bada.

**HIRU.-** Batzordeko kide bakoitzak eskuragarri izango ditu jakinarazitako edo jasotako informazioak, baina Estatutuetan jasotako bideetatik kanpo ezingo du inoiz ere jakinarazi egindako ikerketen edo lortutako informazioen emaitzarik.

### **36. artikulua. ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA**

**BAT.-** Zaintza Batzordeak hurrengo atalean zehaztuta dauden ahalmenak dauzka, baina ezingo du Kooperatibaren kudeaketan zuzenean esku hartu, ezta hirugarrenen aurrean Kooperatibaren ordezkari izan ere. Dena den, Kooperatiba ordezkatu du Kontseilu Errektorearen aurrean edo horko edozein kideren aurrean, organo horren aurkako inpugnazio judizialen bat dagoenean edo horko kideekin kontratuak amaitu direnean.

**BI.-** Zaintza Batzordeak ahalmena dauka eginkizun hauetarako:

- a) Urteko kontuak berrikusi eta nahitaezko txostena egin horiei buruz eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz, horiek Batzar Orokorraren aurrean aurkeztu baino lehen, Kooperatibak bere finantza-egoerak kontu-auditoretza baten mende jarri beharra daukanean izan ezik.
- b) Kooperatibaren liburuak aztertu.
- c) Batzar Orokorra deitu, baldin eta Kontseilu Errektoreak dimisio orokorra eman badu, edo Kooperatibaren intereserako beharrezkotzat jo badu eta Kontseilu Errektoreak Bazkideek egindako eskaerari jaramonik ez badio egin, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 35. artikulua 2 eta 3. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

- d) Ordezkaritzako idatzien egokitasuna gainbegiratu eta kalifikatu, eta, oro har, Batzarretara sartzeko eskubideari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitu.
- e) Legez aurreikusitako kasuetan Elkartearen erabakiak aurkaratu.
- f) Batzar Orokorrari jakinarazi hark agindutako egoeren edo arazo jakinen berri.
- g) Batzar Orokorrak gainerako organoetako kideak hautatu eta izendatzeko prozesua zaindu.
- h) Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 44. artikuluko ezgaitasun- edo debeku-auziren bat duten Kontseilu Errektoreko kideak kargutik kendu, eta, hurrengo Batzar Orokorra egin arte, nahitaezko neurriak hartu.
- i) Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legeak berariaz agintzen dizkion gainerakoak.

**HIRU.**- Zaintza Batzordeak, isilpeko bozketan, Lehendakaria eta Idazkaria aukeratuko ditu bertako kideen artean. Lehendakariak deialdia egin ondoren bilduko da, edo, Lehendakariak ez baldin badago, Batzordea osatzen duen edozein pertsonak alde zuzen egindako deialdiaren bidez. Hala ere, Kontseilu Errektoreko edozein kide edo Zaintza Batzordea bera osatzen duen edonork deialdia egiteko eskatu ahal izango dio organo horretako Lehendakariari, idatziz, eskaera egiteko arrazoiak adierazita. Baldin eta eskaera hori Kontseilu Errektorea edo Zaintza Batzordea osatzen duten pertsonetatik gutxienez heren batek egin badu eta hilabeteko epearen barruan deialdirik egin ez bada, eskaera egin duten taldeetako edozeinek egin ahal izango du deialdia.

Gutxienez hiru hilean behin elkartuko da, zazpi egun lehenago behinik behin Lehendakariak idatziz egindako deialdiaren bitartez, eta baliozko moduan erabakiko da, baldin eta bertako kideen erdiak baino gehiagok bilkuran parte hartu badu. Bertaratzea pertsonala eta eskuordetu ezina izango da, eta erabakiak bilkuran dauden Zaintza Batzordeko kideen botoen erdiak baino gehiagok hartuko ditu. Lehendakariaren botoak ez ditu berdinketak erabakiko. Boto zuriak eta abstentzioak ez dira zenbatuko..

Sistema bat ahalbidetu ahal izango da bideokonferentzia bidez edo antzeko beste sistema baten bidez, aukera emango duena irudia eta soinua bi norabidetan eta aldi berean komunikatzeko eta ikusiz, entzunez eta ahoz elkarrekin hizketan aritzeko.

Batzordeak berak erabakiko du sistema hori erabiltzea. Hala erabakiz gero, Zaintza Batzordeak boto-sistema digitala erabili beharko du bai bertaratutako kideentzat eta bai urrunekoentzat, botoa ematearen eraginkortasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko duena.

Baldin eta Zaintza Batzordeko kideren batek organo horretako bileretan parte hartu badu eta aurreko paragrafoan adierazita dagoen moduan bere borondatea adierazi badu, Idazkariak aktan berariaz jasoko du batzordearen nortasuna eta horretarako erabilitako bitartekoa, erabakiak baliozko eran hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzekin batera.

**LAU.**- Bileraren aktan, Lehendakariak eta Idazkariak sinatuta, honako hauek jasoko ditu: eztabaidak labur-labur bilduta, erabakien testua eta bozketen emaitzak, eta Akta Liburuan jasoko da.

**BOST.**- Likidazio-aldian, Zaintza Batzordeak aurreko artikuluan adierazitakoen artean aipatutako aldi horretan egokiak diren eginkizunak soilik beteko ditu.

**SEI.**- Emandako ahalmenen arabera, baldin eta Kooperatiba bere finantza-egoerak ikuskatzera behartuta badago, kideek egokia dela irizten badiote, Zaintza Batzordeak kontabilitate-euskarri guztiak aztertu ahal izango ditu eta, egokia hala baldin bada, horiei buruzko txostena egin ahal izango du, nahiz eta txosten hori ez den Kooperatibaren urteko kontu ikuskatuak onesteko nahitaezkoa izango.

Era berean, urteko kontuak ikuskatu arren, Zaintza Batzordeak txosten bat egin ahal izango du soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz.

Kasu batean zein bestean, Zaintza Batzordeak Kontseilariari jakinarazi beharko die asmoa daukala Kooperatibaren urteko kontuei eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko nahitaezkoa ez den txosten bat aurkezteko, Bazkideek Ohiko Batzar Orokorraren deialdia argitaratzen duten unean aztertu ahal izan dezaten.

**ZAZPI.**- Zaintza Batzordearen funtzionamendu-araubidea, artikulua honetan aurreikusi ez den guztian, Kooperatibaren Barne Araubideko Erregelamenduan xedatuta dagoenari lotuko zaio.

### **37. artikulua. ERANTZUKIZUNAK**

**BAT.**- Kooperatibak egungo eta etorkizuneko ondare guztia baliatuta erantzungo die sozietatearen zorrei, ondare horretan sartu gabe Kooperatibaren hezkuntzarako eta sustapenerako kontribuzioari eta interes publikoko beste helburu batzuei dagokien ondarea, hori berez dauzkan helburuak betetzeko hartutako betebeharrei erantzuteko baita soilik-soilik.

Bazkideek ez dute sozietatearen zorren inguruko erantzukizun pertsonalik izango. Zor horiekiko daukaten erantzukizuna sinatu dituzten kapital sozialerako ekarpenetara mugatuko da.

**BI.**- Itzuli beharreko ekarpenen zenbatekoa finkatu ostean, baja egingo duten Bazkideek ez dute inolako erantzukizunik izango baja egin baino lehenago Kooperatibak hartutako zorrei dagokienez.

**HIRU.**- Kooperatiba Sozietatearekin kontratuak edo obligazioak berariaz adierazita eta bereziki sinatu dituzten Bazkideek, daukaten izaeragatik Bazkide nortasuna galtzearekin iraungitzen direnak ez badira, bete egingo dituzte horiek, baita baja egin ostean ere.

### **38. artikulua. KAPITAL SOZIALA**

**BAT.-** Kooperatibaren kapital soziala Bazkideen nahitaezko edo borondatezko ondare-ekarpenek osatzen dute.

**BI.-** Kooperatibaren gutxieneko kapital soziala 3.000 eurokoa izango da. Kapital sozialerako ekarpenak izendun partaidetza-txartelen bidez egiaztatuko dira.

**HIRU.-** Bazkideek, Bazkide Laguntzaileek izan ezik, ezin izango dute kapital sozialaren herena baino handiagoko ekarpenik egin.

**LAU.-** Bazkideen kapital sozialerako ekarpen horien diru-itzultzeari baldintzarik gabe uko egin ahal izango dio Kontseilu Errektoreak, Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen 60-1-b artikuluan jasotakoaren arabera. Ondorengo hauek hartuko dira halakotzat:

- 1) Bazkideen hasierako nahitaezko ekarpenak, ordaintzeko unea edozein izanda ere.
- 2) Bazkideen borondatezko ekarpenak.

### **39. artikulua. KAPITAL SOZIALERAKO NAHITAEZKO EKARPENAK**

**BAT.-** Bazkide izateko hasierako nahitaezko ekarpena desberdina izan daiteke motaren arabera, eta bakoitzeko zenbatekoa honako hau da:

- Bazkide Erabiltzaileak.....96 euro.
- Bazkide Laguntzaileak.....96 euro.

Bazkide mota bakoitzarentzat une bakoitzean indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarpenaren %100 ezarri da kapital sozialerako gutxieneko ekarpen moduan, artikulua honen Laugarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

**BI.-** Bazkide izaera eskuratu ahal izateko, onartzeko unean ordaindu beharko da oso-oso. Baldintza hori bete ez baldin bada, ez da Bazkideen Erregistro Liburuan inskribatuko.

**HIRU.-** Batzar Orokorrak Bazkide berrientzako hasierako nahitaezko ekarpenaren zenbatekoa finkatuko du urtero, eta nahitaezko ekarpen berriak eskatzea erabaki ahal izango du. Horretarako, Bazkide mota bakoitzarentzat desberdina izan daitekeen zenbatekoa finkatuko du, baita horiek ordaintzeko epeak eta baldintzak ere. Kapitala nahitaez handitzearekin ados ez dagoen Bazkideak baja egin ahal izango du, eta baja hori borondatezko baja justifikatutzat joko da.

Baldin eta Batzar Orokorrak Bazkideentzako nahitaezko ekarpen berriak adostuko balitu, Kooperatiban Bazkideek egindako borondatezko ekarpenik izanez gero, Bazkideek nahitaezko ekarpen berriak borondatezko ekarpen horiekin estali ahal izango lituzkete, betiere baldin eta Kontseilu Errektoreari hamar eguneko epean idatziz eskatuko baliote, epea bertaratutako Bazkideei buruzko erabakia hartuko zuketean egunean zenbatzen hasita, eta kanpoan leudekeen Bazkideei zegokienez, epea erabakiaren berri jakingo zuketean egunetik zenbatuko litzateke.

**LAU.-** Kooperatibaren galerak Bazkideei leporatzeagatik, horietako baten kapital sozialerako ekarpena artikulua honetako Bat paragrafoan adierazitako gutxieneko zenbatekoaren azpitik geratu bada, eragina jaso duen Bazkideak zenbateko horretara iritsi bitarteko beharrezko ekarpena egin beharko du; horretarako, Kontseilu Errektoreak eskaera egingo die berehala Bazkideei. Ekarpene hori hiru hilabeteko epean ordainduko da, Kontseilu Errektorearen errekerimendua jaso den egunean zenbatzen hasita.

**BOST.-** Aurreko paragrafoetan ezarritakoaren arabera eska daitezkeen ekarpenak ordaintzeko garaian, berandutu den Bazkideak diruaren legezko interesa ordaindu beharko dio Kooperatibari, eta berankortasunak eragindako kalte-galeren ordaina eman. Ordaintzea eskatu zaion egunetik hirurogei (60) eguneko epean bere egoera normalizatu ez duen Bazkidea:

- a) Nahitaezko baja egin ahal izango zaio, baldin eta Bazkidea izateko hasierako nahitaezko ekarpena bada, edo, artikulua honetako Bat paragrafoari dagokionez, Lau paragrafoan adierazita dagoen gutxieneko zenbatekoa bada, edo
- b) gainerako kasuetan Kooperatibatik kanporatu ahal izango da.

#### **40. artikulua. BORONDATEZKO EKARPENAK**

**BAT.-** Helburutzat hartuta kapital sozialaren egonkortasuna indartzea, baliabideak erakartzeko aukerak handitzea eta, aldi berean, Kooperatibaren etorkizunean Bazkideen inplikazioa sustatzea, Bazkideek euren borondatez finantzatzeko aukera emango da, bai eta hori sustatu ere.

**BI.-** Batzar Orokorrek Bazkideek kapital sozialari egindako borondatezko ekarpenak onartzea erabaki ahal izango du, gutxienez honako baldintza hauek ezarrita:

- Ordaintzeko epea.
- Interes-tasa.
- Eguneratzea.
- Dirua itzultzea.
- Eskualdatzeko aukera.

**HIRU.-** Kontseilu Errektoreak bazkideen borondatezko ekarpenak onartu ahal izango ditu, ordainsarien mugak eta muga kuantitatiboak errespetatuz, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 63-2 eta 60-5 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, nahiz eta borondatezko ekarpenak ezin izango diren inoiz ordaindu diruaren legezko interesetik gorako interes-tasekin.

**LAU.-** Entitate eta erakunde publikoek eta onura publikoko pribatuek, izan Bazkide Erabiltzaile eta/edo izan Laguntzaile, era guztietako ondare-ekarpenak egin ahal izango dituzte, edozein titulu juridikoren bitartez, Kooperatiba ezartzeko edo behar bezala garatzeko beharrezkoak diren lursailak, eraikinak eta bestelako ondasun higiezinak lagatzea barne, horiek ekipatuta egon ala ez.

#### **41. artikulua. EKARPENAK EGUNERATZEA**

**BAT.**- Kooperatibaren balantzea Zuzenbide Erkideko sozietateentzat ezarrita dauden modu eta baldintza berberetan erregularizatuko da.

**BI.**- Balantzea erregularizatzearen ondorioz eraturako gainbalioa, ekitaldi batekoa edo gehiagokoa, lehenik eta behin, dauden galerak konpentsatzeko erabiliko da, eta gainerakoa, Batzar Orokorrak xedaturako erabaki eta zenbatekoetan, kapitala eguneratzeko edo erreserbak handitzeko, bai nahitaezkoak, bai borondatezko banaezinak.

#### **42. artikulua. EKARPENEN INTERESA**

Sozietate-kapitalerako nahitaezko ekarpenek ez dute inolako interesik eraturako, eta borondatezko ekarpenek ez dute inoiz diruaren legezko interesa gaindituko.

#### **43. artikulua. EKARPENAK ESKUALDATZEA**

**BAT.**- Ekarpenerak eskualda daitezke, *inter vivos* egintzen bidez eta *mortis causa* oinordetzaren bidez.

**HIRU.**- Bazkideek bazkide izaera (Erabiltzailea edo Laguntzailea) ezkontideari edo beste senitarteko bati transmititu ahal izango diote, lehen ahaidetasun mailara arte. Eskualdatze hori egiteko, aldez aurretik Kontseilu Errektoreak erabaki egin beharko du, eta transmisioa ahalik eta errazen egiteko irizpideari jarraituko dio.

**HIRU.**- *Inter vivos* egintzen bidez, Bazkideen artean, hurrengo hiru hilabeteetan bazkide izateko konpromisoa hartu dutenak barne direla, ondorengo arau hauen arabera:

- Bazkide izateko konpromisoa hartu duenari eskualdatzeko, Bazkide gisa onespenez eraginkorra beharko da.
- Bazkide eskualdatzailearen ekarpena ezin izango da une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko ekarpen-zifra baino txikiagoa izan;
- eskualdatutako ekarpena eskuratzailerak hasierako nahitaezko ekarpena estaltzeko erabili ahal izango du;
- erabakitako eskualdatzeak Kontseilu Errektoreari jakinaraziko zaizkio, hark berretsi, kontrolatu eta erregistratu ditzan.

**LAU.**- *Mortis causa* oinordetzagatik, Bazkideak baldin badira eta hala eskatu baldin badute, dauden arrazoiekin, edo, Bazkideak ez baldin badira, jaraunseak hala eskatuta, heriotza gertatu osteko 3 hilabeteko epean.



**BOST.-** Bazkideen hartzekodun pertsonalek ez dute inolako eskubiderik izango Kooperatibaren ondasunei dagokienez, ez eta Bazkideek kapital sozialari egin dizkioten ekarpenei dagokienez ere, horiek ezin baitira enbargatu. Horrek guztiak ez die kalterik egingo hartzekodunak Bazkideari dagozkion diru-itzultze, interes eta itzuleren inguruan izan ditzakeen eskubideei.

#### **44. artikulua. EKARPENAK ITZULTZEA**

**BAT.-** Bazkide izaera galdu den kasu guztietan, Bazkideak edo egiaztatutako arrazoia daukatenez nahitaez egindako ekarpen kooperatiboak itzultzeko eska dezakete, baja egiteko egunean izango luketen balioarekin.

Horren ebaluazioa baja egin den ekitaldiaren itxiera-balantzean oinarrituta eta legezko xedapenetan horretarako ezarritako baldintzak betez egingo da.

Hala ere, Kontseilu Errektoreak baldintzarik gabe uko egin diezaioke honako Estatutu hauen 38. lau artikuluan adierazita dagoenari berez dagozkion ekarpenak itzultzeko edozein eskaerari.

Baldin eta Kontseilu Errektoreak dirua itzultzeko eskaera onartzea erabaki badu, sistema arau hauen arabera zuzenduko da:

- a) Dirua itzultzeko epea ez da bost urte baino luzeagokoa izango, aipatutako erabakia hartutako egunean zenbatzen hasita, edo, Bazkidea hil baldin bada, urtebete baino luzeagokoa ere ez. Kontseilu Errektorearen eskumena izango da hori zehaztea.
- b) Kontseilu Errektoreak erabaki dituen itzultzeak eskabideen antzintasunaren arabera egin behar dira. Sozietatearen ekarpenak itzultzeko baldintzak zehazteari buruzko gainerako berezitasunak ere Kontseilu Errektorearen eskumenekoak izango dira.
- c) Kooperatibak dirua itzultzea erabaki duen ekarpenetan, itzultzeko dauden zenbatekoek ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran indarrean dagoen diruaren legezko interesa jasotzeko eskubidea emango dute, baina ezin izango dira eguneratu.

**BI.-** Baja 15. eta 16. artikuluetan ezarrita dagoenaren arabera justifikatu denean edo heriotzagatik, ekarpenei ez zaie kenkaririk ezarriko.

Gainerako kasuetan, Kontseilu Errektoreak kenkari bat erabaki ahal izango du:

- ehuneko hogeita hamarrera artekoa (%30), kanporatzeak eragindako baja edo gutxieneko iraunaldia ez betetzeak eragindako justifikatu gabeko baja borondatezko kasuetan.
- ehuneko hogeira artekoa (%20), baja borondatezkoa edo nahitaezkoa, justifikatu gabea, den kasuetan.

Kenkari horiek Bazkidearen nahitaezko ekarpenen likidazio-zenbatekoari aplikatuko zaizkio, eta borondatezko ekarpenei ez zaie inolako kenkaririk ezarriko.

**HIRU**.- Baja eragin duen Bazkideari itzuli beharreko ekarpenetik deskontu egokia egiteko, baja gauzatu den ekitaldiaren itxierako balantzean jasotako galerak zenbatuko dira, bai ekitaldi horri dagozkionak, bai aurreko ekitaldiei dagozkionak, bai konpentsatu gabeak, kapital sozialeko ekarpenen mugaraino, salbu eta Bazkideek kontratuak sinatu badituzte edo obligazioak onartu badituzte Kooperatiba Sozietatearekin, berariaz adierazita eta bereziki, eta, daukaten izaeragatik Bazkide nortasuna galtzearekin iraugitzen direnak ez badira, bete egingo dituzte horiek, baita baja egin ostean ere.

#### **45. artikulua. PARTAIDETZA BEREZIAK**

**BAT**.- Partaidetza bereziak izango dira Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 67. artikuluan ezarritako erregulazioari atxikitako mendeko finantzaketak, eta azpimarratuko da finantzaketa horiek ezin izango direla itzuli jaulki edo kontratatu zirenetik gutxienez bost urte igaro arte, eta horien ordainsaria Kooperatibaren emaitzen arabera ezarriko dela.

**BI**.- Batzar Orokorren eskumena izango da partaidetza bereziak onestea, eta horri dagokion erabakian honako hauek ezarrita:

- a) kontratazioaren edo jaulkipenaren zenbatekoa eta baldintzak; Batzar Orokorrean boto-eskubiderik inola ere ezingo dute eman, ez eta Kontseilu Errektorean parte hartzeko eskubiderik ere.
- b) Bazkideei eskaintzen zaien zenbatekoa, hirugarrenei eskaini aurretik, ez da izango guztizkoaren ehuneko berrogeita hamar baino txikiagokoa (% 50).

#### **46. artikulua. SARTZEKO KUOTAK ETA ALDIZKAKO ETA APARTEKO KUOTAK**

**BAT**.- Batzar Orokorrek sartzeko kuotak eta aldizkako kuotak finkatu ahal izango ditu, eta Bazkideek ordaindu beharko dituzte, aipatutako organo sozialak ezarri duen erabakian zehaztutako aldizkakotasunarekin, zenbatekoarekin eta hark adierazitako moduan. Kasu bakoitzeko Bazkide mota izateko, sarrera-kuotak ezin izango dira izan une bakoitzean indarrean dagoen kapital sozialari egin beharreko gutxieneko ekarpenaren ehuneko hogeita bost (%25) baino handiagokoak. Kuota horiek ez dira sozietatearen kapitalaren parte izango, eta ez zaizkie bazkideei itzuliko.

**BI**.- Batzar Orokorrek unean-unean onartu ahal izango ditu aparteko kuotak, hala eskatzen duten inbertsio espezifikoak egiteko.

Aldizkako eta ezohiko kuotak Bazkide mota guztiei eskatu ahal izango zaizkie, edo Estatutu hauetan aurreikusitako sozietate-tipologietakoren bati bakarrik.

#### **47. artikulua. BESTE FINANTZAKETA BATZUK**

Kooperatibak, dagozkion erabakiak hartu ondoren, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako edozein finantzaketa-modalitatetara jo ahal izango du.

#### **48. artikulua. SOBERAKIN GARBIAK**

**BAT.-** Soberakin garbiak zehazteko, merkataritza-sozietateentzat ezarritako arauak eta irizpideak aplikatuko dira, hurrengo paragrafoan xedatuta dagoena kontuan hartuta.

**BI.-** Honako hauek hartuko dira partida kengarritzat:

- Kooperatiba-kudeaketarako entregatutako ondasunen zenbatekoa, merkatuko prezioak gainditu gabeko balorazioan,
- Kapital sozialerako ekarpenek, partaidetza bereziek, prestazioek eta kapital sozialean txertatu gabeko bestelako finantzaketek eratutako interesak,
- Legez baimendutako amortizazioak,
- Kooperatibaren funtzionamendurako beharrezkoak diren gastuak, eta
- Indarrean dagoen legeria aplikagarrian ondorio berberetarako aitortutako beste edozein kenkari.

#### **49. artikulua. SOBERAKIN ERABILGARRIEN BANAKETA**

**BAT.-** Soberakin garbiekin, aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko kopuruak eta dagozkien zergak kendu ondoren, soberakin erabilgarriak osatuko dira.

**BI.-** Batzar Orokorrak erabilgarri dauden soberakinak banatuko ditu, honako arau hauen arabera:

- a) Nahitaezko Erreserba Funtsa eta Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu batzuetarako Ekarpena (aurrerantzean, "Nahitaezko Ekarpena") zuzkitzeko, erabilgarri dauden soberakinen gutxienez ehuneko hogeita hamar (%30) bideratuko da, eta gutxienez ehuneko hamar (%10) Nahitaezko Ekarpenerako eta ehuneko hogeita (%20) Nahitaezko Erreserba Funtserako.
- b) Nahitaezko Erreserba Funtsa kapital sozialaren ehuneko berrogeita hamarrera (%50) iristen ez den bitartean, Nahitaezko Ekarpeneraren alde ezarritako gutxieneko zuzkidura erdira murriztu ahal izango da.

**HIRU.-** Erabilgarri dauden gainerako soberakinak, Batzar Orokorrak erabakitako proportzioetan, Nahitaezko Erreserba Funtsa hobetzeko, Nahitaezko Ekarpenerako eta Borondatezko Erreserba Funtz Banaezina eratzeko edo hobetzeko erabiliko dira, egokia hala baldin bada.

**50. artikulua. NAHITAEZKO ERRESERBA-FUN TSA ETA NAHITAEZKO EKARPENA**

**BAT.-** Kooperatiba sendotu, garatu eta bermatzera bideratutako Nahitaezko Erreserba Funtsa ezin da Bazkideen artean banatu.

Funts horretara bideratuko dira, nahitaez, aurreko artikuluan aurreikusitako zuzkidurez gain, kapital sozialerako nahitaezko ekarpenen gaineko kenkariak, Bazkideen bajak daudenean, eta sartzeko kuotak.

**BI.-** Nahitaezko Ekarpena ezin da enbargatu, eta haren zuzkidurak balantzeko pasiboan agertu beharko dira, beste partida batzuetatik bereizita.

**HIRU.-** Derrigorrezko Ekarpenaren aplikazio-jarraibide orokorrak berariazko araudian arautuko dira, Batzar Orokorrak ekitaldi bakoitzerako finkatuta, eta ekarpen hori interes publikoko helburu hauetakoren batera bideratuko da:

- a) Kooperatibismoari eta jarduera kooperatiboei buruz Bazkideak prestatzea eta hezteak.
- b) Kooperatiben arteko harremanak sustatzea, kooperatiben arteko sustapenerako, artatzeko, zuzendaritza bateraturako edo laguntza-jardueretarako sortutako erakundeetan parte hartzeagatik eraturako gastuak ordaintzea barne.
- c) Hezkuntza, kultura, lanbide eta artatze mailetako sustapena, bai eta kooperatibismoaren ezaugarriak Kooperatiba garatu den gizarte-ingurunean eta, oro har, gizartean zabaltzea ere.
- d) Euskararen erabilera sustatzea.
- e) Enpresa kooperatibo berriak sustatzea, euskal kooperatiba-mugimenduak sustatutako irabazi-asmorik gabeko erakunde bati egindako diru-ekarpenen bitartez.
- f) Kooperatiba-sozietateetan emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrerapausoak egiteko politika eraginkorra sustatzeko, Bazkideak prestatzea eta hezteak.

**LAU.-** Kooperatibak adierazitako interes publikoko helburuetarako erabili ez den Nahitaezko Ekarpene horren zenbatekoa irabazi-asmorik gabeko erakundeei eman beharko zaie, soberakinaren banaketa onetsi den ekitaldiaren hurrengo ekitaldian, aplikatzeko den indarraldiko kooperatiba-legerian Nahitaezko Ekarpene horretarako ezarrita dauden interes publikoko helburuetara bidera dadin.

**51. artikulua. BORONDATEZKO ERRESERBA FUNTS BANAEZINA**

Kooperatibak Borondatezko Erreserba Funts banaezina eratu ahal izango du, Batzar Orokorrak alde zuzenetik hala erabakita, galerak konpentsatzeko.

**52. artikulua. GALERAK LEPORATZEA**

**BAT.-** Batzar Orokorrak galerak leporatzea honako arau hauen arabera egingo du:

- a) Borondatezko Erreserba Funtsei, halakorik baldin balego, funts guztiak.
- b) Nahitaezko Erreserba Funtsari leporatuko zaio, gehienez ere, legez nahitaezkoak diren funtsetara soberakin positiboko azken bost urteetan, edo hura eratu denetik, bideratu denaren batez besteko ehunekoak, baldin eta funts hori bost urte horiek baino lehenagokoa ez bada. Hala ere, baldin eta Nahitaezko Erreserba Funtsak kooperatibaren kapital sozialaren ehuneko berrogeita hamar (%50) gainditu badu, ehuneko hori gainditu duen zenbatekoa galerak konpentsatzeko ere erabili ahal izango da.
- c) a) eta b) puntuen arabera konpentsatu gabeko zenbatekoa Bazkideei leporatuko zaie, kooperatiba-jardueraren proportzioan, Bazkide bakoitzari galerak banakatu ahal izateko, ondorengo banaketa eta parametro hauek kontuan hartuta:
  - Galerak Bazkide Erabiltzaileei leporatuko zaizkie.
  - Bazkide Erabiltzaile bakoitzak ekitaldian zehar Kooperatibara bidali duen ikasle-kopurua izango da Bazkideek jarduera kooperatibizatuan daukaten parte hartzea neurtuko duen modulua.

**BI-** Batzar Orokorrak erabakitakoaren arabera, Bazkide bakoitzari leporatutako galerak ondorengo moduren batean ordainduko dira:

- (a) Zuzenean edo kenkarien bidez kapital sozialari egindako ekarpenetan edo, egokia hala baldin bada, Bazkideak Kooperatiban egindako edozein finantza-inbertsiotan, baldin eta leporatze hori ahalbidetzen badu, ekarpen horiek gauzatu diren ekitaldiaren hurrengoan.
- (b) Bazkideari hurrengo bost urteetan egokitu ahal zaizkion itzulkinen kontura. Baldin eta konpentsatu gabeko galerak geratu badira, Bazkideak urtebeteko epean ordaindu beharko ditu gehienez.

**HIRU-** Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, Batzar Orokorrak erabaki ahal izango du ekitaldi bateko galera guztiak edo batzuk kontu berezi bati leporatzea, amortizatzeke, etorkizuneko emaitza positiboaren kargura, bost urteko gehieneko epean. Epe hori igarotakoan konpentsatu gabe geratu diren galerak artikuluko honetako Bat paragrafoko a), b) eta c) idatz-zatietan ezarrita dagoenaren arabera ordainduko dira; eta, azken kasuan, urtebeteko epean ordaindu beharko dira.

Denbora tarte horretan baja egin duten Bazkideei konpentsatu gabe dagoen galera-funtsari dagokion zatia leporatuko zaie, abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 73.2.a artikuluan jasotakoaren arabera.

**LAU-** Baldin eta aurreko zenbakietan adierazitako epe guztiak igaro ondoren artean ere konpentsatu gabe geratu badira, Batzar Orokorrak erabakitako ekarpen berrien bidez edo Kooperatiban Bazkide izaten jarraitzeko beharrezkoak diren ekarpen berrien bidez ordainduko dira. Era berean, Bazkideak baja egin beharko du haren ekarpenak Estatutuetan ezarritako gutxienezko behara geratu direnean eta ekarpen berri horiek egin ez dituzenean. Hori guztia, Kooperatibak Konkurtso Legearen arabera konkurtsoa eskatu behar duela kontuan hartu gabe.

### **53. artikulua. KONTUEN AUDITORETZA**

Kooperatibak kanpoko auditoretza egin beharko die, Kontu Auditoretzaren Legean eta hori garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera, urteko kontuei eta ekitaldiko kudeaketa-txostenari, baldin eta ondorengo hauetakoren bat gertatu bada:

- a) Erregelamendu bidez ezarritako mugak gainditu direnean. Muga horiek, gutxienez, honako hauen ingurukoak izango dira: negozio-zifra, balantzearen araberrako aktiboaren zenbateko osoa eta Lege horretatik edo hura garatzeko arauetatik ondorioztatu den batez besteko enplegu-kopurua.
- b) Baldin eta Batzar Orokorraren deialdia exijitzeko nahikoa den Bazkideen gutxiengo batek eskatu badu, eta eskatzaileek euren kostuei aurre egin badiete, kalterik eragin gabe, kontabilitatean akats edo irregulartasun nabarmenak antzemanaz gero, horiek itzultzeari.
- c) Batzar Orokorrak, Kontseilu Errektoreak edo Zaintza Batzordeak erabaki dutenean.

Kontu-auditoreak Batzar Orokorrak izendatuko ditu. Hala ere, Batzar Orokorrak izendapena behar bezala egin ez badu edo izendatutako pertsonak beren eginkizunak bete ezin badituzte, Kontseilu Errektoreak izendapen hori egin ahal izango du, eta egingo den lehenengo Batzar Orokorraren aurrean horren berri emango du.

## **IV. KAPITULUA: DOKUMENTAZIO SOZIALA ETA KONTABILITATEA**

### **54. artikulua. DOKUMENTAZIO SOZIALA**

**BAT.**- Kooperatibak ordenan eta eguneratuta izango ditu ondorengo zerrendan dauden liburuak, erabili aurretik gaitu beharko direnak eta, egokia hala baldin bada, Kooperatiben Erregistroak legeztatu beharko dituenak:

- a) Bazkideen erregistroa.
- b) Kapital sozialerako ekarpenen erregistroa.
- c) Batzar Orokorraren, Kontseilu Errektorearen eta Zaintza Batzordearen aktak.
- d) Inbentarioen eta Balantzeen liburua, eta Eguneroko Liburua.
- e) Beste lege-xedapen batzuek eskatzen dituztenak.

**BI.**- Idazpenak eta oharrak prozedura informatikoen bidez edo egokiak diren beste batzuen bidez egingo dira. Ondoren, korrelazioan koadernatu eta legeztatuko dira sei hilabeteko epean, ekitaldia itxitako egunean zenbatzen hasita, Kooperatiben Erregistroan.

Harik eta Bat c) idatz-zatian adierazita dauden liburuak legeztatuta ez dauden bitartean, Euskadiko Kooperatiben Erregistrora kasuan kasuko akten kopia ziurtatua bidali beharko da bi hilabeteko epean, onetsi direnetik zenbatzen hasita.

### **55. artikulua. KONTABILITATEA**

**BAT.**- Kooperatibek kontabilitatea ordenatuta eta duten jarduerarako egoki eduki behar dute, merkataritza-legeriaren arabera, kooperatibentzako berariazko arauketan izan ezik. Kooperatibaren araubide ekonomikoaren berezitasunak beti errespetatuko dira. Kooperatibaren ekitaldi ekonomikoa dagokion urteko urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko da.

**BI.**- Ekitaldi-itxieran, Kontseilu Errektoreak Kooperatibaren Urteko Kontuak egin beharko ditu; kontu horietan Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, Memoria eta, egokia hala baldin bada, Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera-orria eta Eskudiru Fluxuen Egoera-orria sartuko dira, aplikatzekoa zaion finantza-informazioaren arau-esparruari jarraituta, eta sozietatearen ekitaldia itxi denetik gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Kontseilu Errektoreak dagokion Kudeaketa Txostena eta Urteko Kontuak sartuko ditu, merkataritza-legeriaren arabera, eta, egokia hala baldin bada, informazio ez-finantzarioaren egoera-orria, Kudeaketa Txostenean edo txosten bereizi batean sartuta.

## **56. artikulua. URTEKO KONTUEN GORDAILUA**

Kontseilu Errektoreak Urteko Kontuak aurkeztuko ditu, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan gordailutzeko, Batzar Orokorrak onetsi osteko hilabeteko epean, eta, egokia hala baldin bada, Kudeaketa Txostena eta kontu-auditoreena ere bai, Kontseilu Errektoreko kide guztiek sinatuta, eta baten bat sinatu gabe gelditu baldin bada, berariaz adieraziko da hori ez egitearen arrazoia.



## VII. KAPITULUA DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

Kooperatiba desegiteko eta likidatzeko, honako Estatutu hauetan eta Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 91. artikulutik 101.era bitartean ezarrita dagoena bete beharko da.

### 57. artikulua. DESEGITEKO ARRAZOIAK ETA ERABAKIAK

**BAT.**- Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 91. artikulua araberan, Kooperatiba desegiteko arrazoiak izango dira honako hauek:

- a) Estatutuetan finkatutako muga betetzea.
- b) Sozietatearen xedea amaitzea edo helburu hori gauzatzeko ageriko ezintasuna.
- c) Organo sozialak geldiaraztea edo jardun gabe egotea edo kooperatiba-jarduera arrazoi justifikaturik gabe etetea, bi kasuetan ere elkarren segidako bi urtez.
- d) Kooperatiba eratzeko legez behar den gutxieneko Bazkide-kopurua baino txikiagoa izatea, baldin eta hamabi hilabete baino gehiagoz iraun badu.
- e) Sozietatearen kapitala Estatutuetan ezarritako gutxieneko kapital sozialaren zenbatekoa baino txikiagoa den zenbatekora murriztea, eta hamabi hilabeteko epean ez berrezartzea.
- f) Erabateko bat-egitea edo zatiketa.
- g) Konkurtso-prozeduran Kooperatibaren likidazio-fasea irekitzea.
- h) Batzar Orokorraren erabakia, Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen 38.2 artikuluan aurreikusitako gehiengoz hartua.
- i) Legeetan edo Estatutu Sozialetan ezarritako beste edozein arrazoi.

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **Lehenengoa. Arbitraje kooperatiboa**

Honako Kooperatibaren eta beste kooperatiba batzuen artean, Kooperatiba honen eta bere bazkideen artean edo harreman kooperatibizatuen esparruan sortu diren auzi izatera iritsi daitezkeen kontuak, baita likidazio-aldian sor daitezkeenak ere, Kooperatibaren barne-bideak eta, egokia hala izanik, kontziliazio-bideak agortu ostean, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenaren zuzenbideko arbitrajearen mende jarriko dira, Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren (KAEZ) bitartez, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenaren Euskal Kooperatiben Gatatzak Ebazteko Prozedurei buruzko Erregelamenduaren arabera (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 34. zk., 2012ko otsailaren 16koa), edo etorkizunean hori ordeztuko duen araudiaren arabera, baldin eta organo horrek gai horiek ebazteko eskumena badu, eta alderdiek arbitraje horretatik eratorritako laudoa onartzeko konpromisoa berariaz hartu badute.

Kooperatibako Bazkideek, kooperatiben eta Kooperatibaren artean sor daitezkeen gatatzak konpontzeko, daukaten izaeratik eratorrita, Kooperatibaren barne-bidea agortu beharko dute aldeztu aurretik, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legean, lege hori garatzeko arauetan, honako Estatutu sozial hauetan edo Kooperatibaren barne-arauetan ezarritakoaren arabera.

### **Bigarrena. Legelari aholkularia**

Kontu Auditoretzaren Legean edo lege hori garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera, urteko kontuak nahitaez kanpo-auditoretzaren mende jartzera behartuta dauden aholkularitzek legelari aholkulari bat izendatu beharko dute, Kontseilu Errektorearen erabakiz.

Legelari aholkulariak sinatuko ditu Kooperatiben Erregistroan inskriba daitezkeen Batzar Orokorrak edo Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiak, Zuzenbidearekin bat al datozen ebatzita.

Erabaki horien ziurtagirietan idatziz jasoko da akta-liburuan bilduta daudela legelari aholkulariak irizpena emandako erabaki horiek.

Lanbide arloan arduragabekeriaren bat izanez gero, legelari aholkulariak erantzukizun zibilez erantzungo du, Kooperatibaren, haren bazkideen eta hirugarrenen aurrean.

Eginkizun hori bateraezina izango da aldi berean Zuzendari Gerente edo Kontseilu Errektoreko edo Zaintza Batzordeko kide izatearekin.

Kooperatibaren eta legelari aholkulariaren arteko harremana zerbitzuak alokatzekoa izan daiteke, profesional liberal gisa edo lan-kontratu bitartez.

### **Hirugarrena. Delituak prebenitzeko eredu eta horien jarraipena egiteko mekanismoak.**

**Bat.** Kooperatibak delituak prebenitzeko eredu bat izango du, eta horien jarraipena egiteko mekanismo bat ezarriko du.

**Bi.** Eredu horren edukia Kontseilu Errektoreak onetsi eta Batzar Orokorrak berretsiko du, eta honako hauek jasoko ditu: arriskuen mapa, erabakiak hartzeko protokoloa, kudeaketa-eredua, salaketen sistema, zehapenen araubidea, egiaztatzeko sistema, aldian behin berrikustea eta Delituak Prebenitzeko Eredua eguneratzea.

**Hiru.** Delituak prebenitzeko eredu gainbegiratzea, funtzionamendua eta betetzea Kooperatibako organo baten esku utzi behar da. Organo horrek ekimeneko eta kontroleko botere autonomoak izan behar ditu, edo pertsona juridikoaren barne-kontrolen eraginkortasuna ikuskatzeko eginkizuna legez esleituta izan behar du. Kooperatibak besteren konturako 250 bazkide langile baino gehiago ez dituen bitartean, eginkizun hori Kontseilu Errektorearen esku utzi behar da, eta kopuru hori gainditzen duenean, eginkizun horiek bere gain hartzeko organo espezifikoa bat izendatu behar da nahitaez, indarrean dagoen zigor-arloko araudian horrela ezarrita dagoelako.

### **Laugarrena. Kooperatiba indarkeria sexistarik gabeko eremua izateko baliabide berriak.**

**Bat.** Kooperatibak indarkeriarik gabeko lan-espazioak izango ditu, eta horietan emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioak errespetatuko dira.

**Bi.** Kooperatibak sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari erantzuteko protokolo bat izango du, zeinetan jasoko diren sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruz aurkeztutako erreklamazioak eta salaketak ebazteko jarduketak, eta behar bezalako bermekin aplikatuko da.

**Hiru.** Kooperatibak beharrezko prestakuntza eta informazioa eskainiko die besteren konturako langile guztiei, jabetu daitezkeen beharrezkoa dela aipatutako eskubideak erabat errespetatzea.

### **Bosgarrena. Kooperatiban lan egiten duten pertsonen ordainsariak mugatzea.**

Kooperatibako soldatapeko langileek ezin izango dute jaso sektoreko soldatapeko langileei aplika dakiekeen ikastolen hitzarmen kolektiboan lanbideko jardueraren eta kategoriaren arabera ezarrita dauden ordainsarien ehuneko ehun eta berrogeita hamarretik gorako ordainsaririk.